



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## BIZKAIKO ABOKATUEN BAZKUNAREN EBAZPENA

### 126-ZEH-(2015) LEAren proiektua

#### Sumarioa:

I. AURREKARIAK.....	2
II. EGITATE FROGATUAK.....	4
III. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK.....	10
1. Bazkunaren jarduera lehia defendatzeko legediaren menpe jartzea .....	10
2. Txandetan eskaintzen diren zerbitzuei aplikatzekoa den arautegia .....	11
A. Zerbitzuak libreki eskaintzeko oinarritzko arautegia .....	11
B. Ofizio-txandaren eta guardia iraunkorraren zerbitzuen arau-esparrua .	13
C. Txandek behar bezala funtzionatzeko kontrol-arauak .....	16
3. Tipikotasuna .....	18
A. Abokatuaren guardiako laguntza .....	20
B. Ofizioko txanda.....	24
C. Ondorioa.....	26
4. Antijurizitatea .....	28
A. Doako laguntza juridikoari lehia-arautegia ustez ez aplikatzea.....	28
B. Bazkunaren jokabideak eragiten dion "merkatua" egotea.....	29
C. Litekeen lege-babesa .....	31
D. Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 1.3 artikulua aplikatzeko aukera .....	33
5. Erantzukizuna. Erruduntasuna.....	35
6. Zehapenaren zenbatekoa ezartzea .....	38
IV. EBAZTEN DU .....	41

#### Osoko bilkura:

María Pilar Canedo Arrillaga, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernandez jauna

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), 2017ko martxoaren 20ko bileran eta adierazitako osaketa zuelarik, ebazpen hau eman du, Bizkaiko Abokatuaren Bazkunaren 126 -SAN- (2015) espedientean.



## I. AURREKARIAK

2. 2015eko ekainaren 15ean, Lehiaren Euskal Agintaritzaren (aurrerantzean, LEA) erregistroan XXX abokatu andreak Bizkaia Jaurreriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren (aurrerantzean, Bazkuna) aurka egindako salaketa sartu zen, Bazkunak ukatu egin ziolako **ofizio-txandako** eta **guardia iraunkorreko txandetako** zenbait espezialitatetan izena ematea, salatzailearen arabera, lehia askearen aurka (1. orritik 11. orrira bitartean).

3. 2015eko irailaren 21ean, Bazkuna zigortzeko prozedura irekitzeko ebazpena eman zen, Lehiaren Defentsari buruzko legearen 1. artikulua balizko urratzeagatik, doako laguntza juridikoko zerbitzuen harira.<sup>1</sup> Irekiera-ebazpenean instrukziogilea izendatu zen eta prozedura zigortzaileko interesduntzat onartu ziren Bazkuna eta Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordea (CNMC) (12. orritik 15. orrira bitartean).

4. 2015eko azaroaren 2an Bizkaiko Bazkunari informazioa eskatzeko erabakia eman zen, eta 2015eko azaroaren 3an jaso zuen jakinarazpena. Azaroaren 18an, eskatutako dokumentazioa atxikitzen zuela zioen idatzia sartu zela erregistratu zen (34. orritik 100. orrira bitartean).

2016ko otsailaren 18an, erabaki berria eman zen, berriro ere informazioa eskatzeko, jotzen zelako hasiera batean eskatutako informazioa ez zela guztiz aurkeztu (102. orritik eta 104. orrira bitartean). Bazkunak 2016ko otsailaren 19an jaso zuen jakinarazpena. Erabaki horri erantzunez, Bazkunaren idatzi berri bat sartu zen 2016ko martxoaren 4an LEAren erregistroan, dokumentazio atxikiarekin (106. orritik 199. orrira bitartean).

5. 2016ko maiatzaren 31n informazioa eskatzeko erabaki berri bat eman zen, Bazkunari informazio berria eskatzeko. Bazkunak eskatutako informazioa justifikatzeko arrazoiak hobeto azaltzeko eskatu zion LEAri (209. orritik 211. orrira bitartean). LEAk (212 orria eta hurrengoak) berriro egin zuen informazio-eskaera 2016ko ekainaren 14an eta, azkenik, 2016ko uztailaren 20an erantzun zitzaion (225. orritik 423. orrira bitartean).

---

<sup>1</sup> Estatuko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzeari buruzkoa, 2007ko uztailaren 4ko 159. BOEn argitaratua eta honako hauek aldatua: 39/2010 Legea, abenduaren 22koa, BOE-A-2010-19703; 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, BOE-A-2011-4117, eta 3/2013 Legea, ekainaren 4koa, BOE-A-2013-5940. Testu finkatua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>.



**6.** 2016ko maiatzaren 31n Herri Administrazio eta Justizia Sailari informazioa eskatzeko erabakia eman zen (erantzuna 224 bis orrian), orobat Legelarien Euskal Kontseiluari informazioa eskatzekoa (erantzuna 217. orritik 222. orrira bitartean).

**7.** 2016ko abuztuaren 30ean instrukziogilea ordezkatzeko Ebazpena eman zen (425. orria).

**8.** 2016ko urriaren 4an, lau gai azaltzeko eta informazio gehigarria eskatzeko erabakia eman zen. Informazio-eskaera horren erantzuna 2016ko urriaren 19an jaso zen LEAren erregistroan.

**9.** 2016ko azaroaren 30ean XXX andrea espedientean interesdun deklaratzeko Ebazpena eman zen.

**10.** 2016ko abenduaren 7an, Gertakariak Zehazteko Baldintza Orria (aurrerantzean, GZBO) helarazi zitzairen interesdunei. Bazkunak 2016ko abenduaren 27an aurkeztu zituen alegazioak eta ez zuen frogarik proposatu.

**11.** 2017ko urtarrilaren 24an, instrukzioaren fasea ixteko probidentzia agindu zen, Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren <sup>2</sup>33. artikuluan ezarritakoarekin bat.

**12.** Ebazpen-proposamena 2017ko otsailaren 7an eman zen; interesdunei jakinarazi, eta 15 eguneko epea eman zitzairen alegazioetarako, Lehiaren Babesari buruzko Legearen 50.4 artikuluan xedatutakoa betez.

2017ko otsailaren 24an, Bazkunak alegazio-idatzia aurkeztu zuen.

**13.** 2017ko martxoaren 1ean Lehiaren Euskal Kontseilura bidali zen administrazioaren espedientea, eta horrekin batera bidali ziren, batetik, dagokion ebazpen-proposamena eta, bestetik, txosten bat non adierazten baita zehapen-espedientearen xede diren enpresa guztiek proposamen horri alegazioak aurkeztu dizkiotela, baina alegaziook ez dituztela indargabetzen proposamenean ateratako ondorioak. Hori dela eta, berriro egiten da Proposamena.

---

<sup>2</sup> Otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretua, Lehia Defendatzeko Erregelamendua onartzen duena (2008ko otsailaren 27ko BOE, 50. zk.).



## II. EGITATE FROGATUAK

**14.** Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua Zuzenbide Publikoko Korporazioa da, nortasun juridiko propioa duena eta jarduera-esparru geografikoa Bizkaiko lurralde osoan duena.

Bizkaiko Bazkunak 3.551<sup>3</sup> kide ditu jardunean.

**15.** Salatzaileak ez du ohiko bizilekua Bizkaian, baina bulego profesionala Getxon du.

**16.** Edozein Elkargotako kide izateak ogibide horretan Estatu osoan jarduteko gaitzen zaituen arren, 2015ean, salatzaileak Bizkaiko Bazkunean eman zuen izena, zegozkion kuotak ordainduz, salaketa aurkeztu zuen unean, gaur egun, Madrilgo Elkargoko kide izan arren.

2015 urtean bertan, ofizioko txandan jardutea eskatu zuen, "Bilboko, Barakaldoko eta Getxoko barruti judizialetan, Zuzenbide Penal Berezia, Penal Arrunta, Espetxeak, Atzerritarrak, Adin Txikikoak eta Etxeko Indarkeria espezialitateetan, orobat atxilotuei laguntzeko guardia iraunkorretan, Atzerritarrak, Adin Txikikoak eta Etxeko Indarkeria espezialitateetan".

**17.** 2015eko ekainaren 2an, salatzaileak Bazkunaren fax bat jaso zuen, aipatutako ofizio-txandetan eta guardietan izena emateko eskaerari uko egiten ziona, ohiko bizilekua Bizkaian ez izateagatik eta bulegoa dagokion lurralde-barrutian ez izateagatik. Bazkunak 1997ko Ministerio Agindu baten 1. artikulua aipatzen du, hitzez hitz (11. orria).

LEAren informazio-eskaerei erantzuteko Bazkunak emandako informazioan, Bazkunaren txandetan izena emateari uko egiteko kausatzat jasotzen da **salatzailea Madrilgo Elkargoko txandetan altan emanda** egotea (296. eta 304. orriak).

**18.** Bazkunaren funtzionamenduaren barne-erregelamenduekin bat, beharrezkoa da ohiko bizilekua Bizkaian izatea, ofizioko txandan eta abokatuaren laguntzako guardiako txandetan izena eman ahal izateko<sup>4</sup>.

---

<sup>3</sup> Informazio hori Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren webguneko elkargo-gidan dago eskuragarri. <http://extranet.icasv-bilbao.com:8082/Asp/Modulos/LstColegiados.aspx>. Kontsultaren data: 2016/11/29.

<sup>4</sup> Ikus Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren 1988ko Ofizio Txandako eta Laguntza Txandako barne Erregelamendua, 1988ko maiatzaren 1az geroztik aplikatzen dena. Bazkunaren webgunean dago eskuragarri: <http://www.icasv-bilbao.com/normativa2.aspx>.



Bazkunaren webgunean argitaratuta dagoen Erregelamenduak betebeharrak ezarri baino egiten ez duen arrear, Bazkunak arau aplikagarrien eta bestelako dokumentuen zerrenda argitaratuta dauka webgunean, "Ofizioko Txandarako eta Atxilotuen Laguntzarako Arautegia" epigrafepean. Zerrenda horretan, Erregelamenduko eskakizunak baino gehiago eskatzen dituzten bi dokumentu daude<sup>5</sup>:

- Txandan Sartzeko Betekizunak (1997ko ekainaren 3ko Ministerio Agindua)<sup>6</sup>.
- Txandan Sartzeko Betekizunak (2010)<sup>7</sup>.

Aipatutako Ministerio Agindua, gainera, egoitza bazkunari dagokion esparruan izatea eta izena eman nahi duen txandari dagokion lurralde-barrutian bulego irekia izatea eskatzen du.

"Txandan izena emateko baldintzak (2010)" dokumentuak (161. orria) honako hau ezartzen du:

"Une honetatik aurrera, Ofizioko Txandan edo Laguntzarako zerrendetan izena eman nahi dutenek, baina Praktika Juridikoko Eskola egin ez dutenek, egoitza dagokion barruti judizialean izateaz gainera, jarraian azaltzen diren baldintzak bete beharko dituzte".

**19. Bizkaiko lurraldea sei barruti judizialean dago banatuta:** <sup>8</sup>: 1. zk.-Durango<sup>9</sup>, 2. zk.- Barakaldo<sup>10</sup>; 3. zk.-Gernika-Lumo<sup>11</sup>, 4. zk.-Bilbo<sup>12</sup>, 5. zk.-Balmaseda<sup>13</sup> eta 6. zk.-Getxo<sup>14</sup>.

<sup>5</sup> Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren webgunean dago eskuragarri. <http://www.icasv-bilbao.com/normativa2.aspx>.

<sup>6</sup> 1997ko ekainaren 3ko Agindua, doako laguntza juridikoa eskaini ahal izateko prestakuntza-baldintza orokor minimoak eta beharrezko espezializazioa ezartzen dituena, 1997ko ekainaren 17ko BOE, 144. zk.

<sup>7</sup> Gauza bera gertatzen da 2010eko otsaileko 187. zenbakiko Bizkaiko Bazkunaren Informazio Buletinarekin.

<sup>8</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko barruti judizialen burua zehazten duen apirilaren 6ko 1/1990 Euskal Legea. 1990ko maiatzaren 14ko EHAA, 94. zk., eta 2012ko otsailaren 29ko BOE 51. zk.

<sup>9</sup> Honako udalerrri hauek osatzen dute: Abadiño, Zornotza, Arantzazu, Areatza, Atxondo, Bedia, Berriz, Castillo-Elejabeitia, Zeanuri, Dima, Durango, Elorrio, Ermua, Garay, Igorre, Iurreta, Izurtza, Lemoa, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Ubidea, Zaldibar.

<sup>10</sup> Honako udalerrri hauek osatzen dute: Abanto Zierbena, Alonsotegi, Barakaldo, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran.

<sup>11</sup> Honako udalerrri hauek osatzen dute: Ajangiz, Amoroto, Arrieta, Aulesti, Bakio, Bermeo, Berriatua, Busturia, Ea, Etxebarria, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Fruiz, Gamiz-Fika, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Gizaburuaga, Ibarrangelu, Ispaster, Kortezubi, Lekeitio, Markina-Xemein, Meñaka, Mendata, Mendexa, Morga, Mundaka, Mungia, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Nabarniz, Ondarroa, Sukarrieta.






Jarraian, Bizkaiari dagozkion barruti judizialen mugapeak jasotzen dituen Justizia Ministerioaren mapa ageri da<sup>15</sup>.



**Bizkaia**

Mapa de la provincia y partidos judiciales de su ámbito territorial



**20. Bazkunaren barne Erregelamenduak ezartzen du ofizioko txandak borondatezko izaera duela eta zazpi arlok osatzen dutela:**

Penal berezia, kausa larriena, non zigor-eskaera 6 urtetik gorakoa baita (aurrerantzean, penal berezia); Penal arrunta, arlo militarra barne (aurrerantzean, penal arrunta); Zibila, Merkataritzakoa (aurrerantzean, Pribatua); Familia zuzenbidea eta zuzenbide

<sup>12</sup> Honako udalerri hauek osatzen dute: Etxebarri Doneztebeko Elizatea, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Bilbo, Derio, Erandio, Galdakao, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Urduña, Orozko, Sondika, Ugao-Miraballes, Zamudio, Zaratamo, Zeberio.

<sup>13</sup> Honako udalerri hauek osatzen dute: Artzentales, Balmaseda, Karrantza, Galdames, Gordexola, Gueñes, Lanestosa, Sopuerta, Trutziroz, Zalla.

<sup>14</sup> Honako udalerri hauek osatzen dute: Barrika, Berango, Gatika, Getxo, Gorniz, Laukiz, Leioa, Lemoiz, Maruri, Plentzia, Sopela, Urduliz.

<sup>15</sup> JUSTIZIA MINISTERIOA, *Bizkaiko barruti judizialen mapa*. Eskuragarri hemen: <http://www.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/es/1288774671469/DetalleCartojus.html> Azken kontsulta: 2017/01/30.



kanonikoa (aurrerantzean, familia); Administratiboa, Fiskala eta beste (aurrerantzean, administratiboa); Lana (aurrerantzean, lana), eta Espetxeak (aurrerantzean, espetxeak).

Bazkunak beste hiru gaitarako ere antolatzen ditu ofizioko txandak<sup>16</sup>:

Genero-indarkeria (indarkeria)<sup>17</sup>; Adin txikiko pertsonak aurrerantzean, adin txikikoak)<sup>18</sup>; Atzerritarrak<sup>19</sup>.

Bizkaian, ofizioko txanden antolamendua desberdina da arloen arabera. Bazkunak honela antolatzen ditu mugapeak (434 eta 436 bitarteko orriak):

Ofizioko txanda	Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak (BJABO) ezarritako lurralde-mugapeak					
	Getxo	Barakaldo	Bilbo	Durango	Gernika-Lumo	Balmaseda
Indarkeria		1. mugapea		2. mug.	3. mug.	4. mug.
Familia		1. mugapea		2. mug.	3. mug.	4. mug.
Penal berezia		1. mugapea		2. mug.	3. mug.	4. mug.
Penal arrunta		1. mugapea		2. mug.	3. mug.	4. mug.
Pribatua		1. mugapea		2. mug.	3. mug.	4. mug.
Administratiboa				Mugape bakarra		
Atzerritarrak				Mugape bakarra		
Lana				Mugape bakarra		
Adin txik koak				Mugape bakarra		
Espetxeak				Mugape bakarra		

21. Bestalde, guardia iraunkorreko lau txanda daude<sup>20</sup>:

Atxilotuen laguntza; Adin txikiko pertsonen laguntza (aurrerantzean, adin txikikoak); Genero-indarkeria (indarkeria); Atzerritarren laguntza.

<sup>16</sup> Ikus Doako Laguntza Juridikoari buruzko ekainaren 19ko 110/2012 Euskal Dekretuaren 30 artikulua, 2012ko uztailaren 6ko EHAA, 132. zk.

<sup>17</sup> 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa, 2004ko abenduaren 29ko BOE, 313. zk.

<sup>18</sup> 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena; 2000ko urtarrilaren 13ko BOE, 11.zk.

<sup>19</sup> 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horiek gizartean integratzeari buruzkoa, 2000ko urtarrilaren 12ko BOE, 10. zk.

<sup>20</sup> Doako laguntza juridikoari buruzko 24. artikulua, Auzipetze Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen duen urriaren 5eko 42/2015 Legeak aldatzen duena, BOE, 239. zk., 2015eko urriaren 6a.



Bazkunak honela antolatzen ditu guardien mugapeak:

Guardia-txandak	Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak (BJABO) ezarritako lurralde-mugapeak					
	Getxo	Barakaldo	Balmaseda	Durango	Gernika-Lumo	Bilbo
Atxilotuak	1. mug.	2. mug.	3. mug.	4. mug.	5. mug.	6. mug.
Indarkeria	1. mug.			2. mug.	3. mug.	
Adin txikikoak	Mugape bakarra					
Atzerritarrak	Mugape bakarra					

Bazkunak indarkeriako guardiarako ezartzen dituen mugapeak Eusko Jaurlaritzaren eta Legelarien Euskal Kontseiluaren arteko Hitzarmenean ezarritakoan oinarritzen dira<sup>21</sup>.

**22.** Bazkunak justifikatzen du ofizioko txandetarako mugape bakarrak egon behar direla administrazio-zuzenbidean, lan-zuzenbidean, espetxe-arloan, adin txikikoen arloan eta atzerritarren arloan, baita adin txikiko eta atzerritarren guardia-txanda iraunkorretarako ere; izan ere, aipatutako arloez arduratzen diren Auzitegi eta Epaitegiek Bizkaia osoan dute jurisdikzioa. Ez da gauza bera gertatzen merkataritza-arloarekin (Pribatua deritzon txandan jasotzen da), nahiz eta egoera bera den.

Indarkeria, familia, penal berezia, penal arrunta eta pribatua deritzen arloetako ofizioko txandetan, Bazkunak mugape bakarra antolatzen du Getxon, Barakaldon eta Bilbon; indarkeria-arloko guardiako txanda iraunkorrek mugape bakarra du Getxon, Barakaldon eta Balmasedan; atxilotuen guardia iraunkorreko txandaren kasuan, mugapea barruti judizialarekin bat dator. Bazkunak ez du erabaki hori justifikatzen.

**23.** Bazkunean izena emanda dauden eta jardunean diharduten 3.551 kideetik, honako hau da ofizioko txandan izena emanda dauden profesionalen kopurua, espezialitateka, Bizkaiko Bazkunak 2016ko martxoan emandako informazioaren arabera:

Ofizioko txanda	Zenbakia	Ofizioko txanda	Zenbakia
Administrat boia	635	Adin tx kikoak	508
Pr batua	1.141	Penal berezia	281
Atzerritarrak	336	Penal arrunta	1.193
Familia	1.151	Espetxeak	426
Lana	666	Indarkeria	487

Atxilotuei laguntzeko guardia iraunkorreko txandan 1.113 profesional daude erregistratuta, eta honako hau izan da guztizko guardia kopurua (188. orria):

Guardia-txanda mota	Guardia kopurua
---------------------	-----------------

<sup>21</sup> Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren pertsonen berehalako laguntza juridikoa emateko hitzarmena, 2007ko otsailaren 26koa. Administrazio-espeditzeko 170. orritik 178. orrira bitartean eskuragarri.





	2010. urtea	2011. urtea	2012. urtea	2013. urtea	2014. urtea
Atxilotuen, Adin txik koen eta Atzerritarren arreta <sup>22</sup>	4.118	4.286	4.431	4.871	4.879
Indarkeria <sup>23</sup>	1.305	1.304	1.308	1.303	1.302

Bilboko, Barakaldoko eta Getxoko barruti judizial bakoitzean, profesional bakoitzeko ofizioko txanden eta guardien batezbestekoa (salatzaileak bere inskripzioan eskatu zituen mugapeak eta espezialitateak) honako hau da (436. orria):

2015	Bilbo	Barakaldo	Getxo	Batezbestekoa <sup>24</sup>
<b>Ofizioko txandak</b>				
Atzerritarrak	2,29	1,9	1,82	2,00
Adin txikikoak	0,79	0,93	0,52	0,75
Penal berezia	0,05	0,16	0,07	0,09
Penal arrunta	3,85	9,17	6,29	6,44
Espetxeak	0,39	0,45	0,07	0,30
Indarkeria	2,12	4,57	4,6	3,76
<b>Guardia-txanda iraunkorrak</b>				
Atxilotuak	2,54	6,89	6,75	5,39
Atzerritarrak	1,05	1,05	1,05	1,05
Indarkeria	2,25	2,74	2,74	2,58

**24.** Bazkunak eskatutako informazioan, ez dago Bazkuneko ofizioko edo guardiako txandetan izena emanda dagoen Espainiako beste Elkargo batzuetako kiderik.

Hain zuzen ere, LEAk abokatuen Elkargo-adskripzioari buruz espezifikoki galdetutakoan, Bazkunak zutabe bakarrarekin ("Elkargoa-bizilekua") erantzuten du, izen bakoitzaren ondoan (37. orritik 100. orrira bitartean).

**25.** Bazkunak (182. orria) ofizioko txandaren eta atxilotuei laguntzeko txandaren segimendu-batzorde iraunkorra du (hemeretzigarren araua), eta horren funtzioen artean dago txanden segimendua eta kontrola egitea.

Bazkunak txanden funtzionamenduaren kontrola (ofiziokoak eta guardiak) zentratzen dituela adierazten du eta, ondorioz, Bazkunak diseinatutako diziplina-sistemaren onuradunen tutoretza judizial efektiboa bermatzen du (228. orritik 230. orrira bitartean).

Diziplina-espeditenteen jatorria zerbitzuaren onuradunen, beste abokatu batzuen edo epaitegien salaketak dira (230. orria eta 348. orritik 423. orrira bitartean, 8. eranskina).

<sup>22</sup> 1 eta 7 egun bitarteko guardiak, Barruti Judizialaren arabera.

<sup>23</sup> 1 eta 4 egun bitarteko guardiak, gehi guardia indartzeko denbora, Barruti Judizialaren arabera.

<sup>24</sup> Salatzailearen eskaerako hiru barruti judizialetako urteko txanden eta guardien batezbestekoa.



Bazkunak eskaintako informaziotik, ondorioztatzen da, 2010a eta 2015a bitartean, Bazkunak 581 diligentzia ireki izan dituela. Horien artean, 497 diligentziak artxiboan amaitu dute; 45etan diziplina-espeditzea ireki da; eta 27tan idatzizko ohartarazpena egin da (322. orritik 347. orrira bitartean, 6. eta 7. eranskinak).

Bazkunak berak 24 espediente hautatu ditu (348. orritik 422. orrira bitartean, 8. eranskina). Horietatik, 7tan ohartarazpenak egin dira; 6k zigorra eragin dute; eta 11k artxiboan amaitu dute. Aipatutako espedienteen kausak honako hauek izan dira: ez agertzea; auzietara ez bertaratzea; dagokion txandan eskuragarri ez egotea; eta helegite eta frogak ez aurkeztea eta bestelako jarduera prozesalak ez egitea.

### III. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

#### 1. Bazkunaren jarduera lehia defendatzeko legediaren menpe jartzea

**26.** Zalantzarik gabe, Lehia Defendatzeko Legea aplikagarria da, merkatuan eragiten duten Bazkun profesionalen jardueran.<sup>25</sup> Hain zuzen ere, Lehia Defendatzeko Legearen 2.4 artikulua -2009ko abenduaren 27tik dago indarrean- berariaz eta argi ezartzen du Bazkunen akordio, erabaki eta ebazpenek LDLaren mugak kontuan hartuko dituztela.

Hori baino lehen, 2006an, Auzitegi Gorenak aztertu zuen Elkargo Profesionalak lehiari buruzko arauen menpe jartzearen gaia, Madrilgo Notarioen Elkargoak jarritako kasazio-helegitean<sup>26</sup>:

Hain zuzen ere, Auzitegi Gorenako Administrazioarekiko Auzien Aretoa bat dator instantzia-aretoaren arrazoibidearekin, esaten duenean **helegitea jartzen duen Notario Elkargoari erabat aplikagarri zaiola Lehia Defendatzeari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legea, eta aipatu Legeko 1. artikuluko debekuak urratzen dituen jokabideari dagokion konpentsazio-mekanismoari dagokionez; izan ere, 2001eko urtarrilaren 17ko Akordioa elkargokideen jarduera profesionala antolatzeko eskumenean jardutean onartzeak, Elkargo Profesionalei buruzko uztailaren 13ko 2/1974 Legearen 5. artikuluan xedatutakoarekin bat, ez du esan nahi Akordio horrek administrazio-legezketasunaren printzipioarekin bat etorri behar duenik, Konstituzioaren 36. eta 103. artikuluetan xedatutakoaren arabera, ez eta lehia defendatzeko legedia espezifikoki errespetatu behar duenik ere.**

Ildo horretan, nabarmentzekoa da Elkargo Profesionalei buruzko Legearen 2.4. artikulua, Zoruaren eta Elkargo Profesionalen arloan liberalizatzeko neurriei buruzko apirilaren 14ko 7/1997 Legearen idazpenean. Artikulu horrek honako hau xedatzen du:

<sup>25</sup> Auzitegi Gorenaren 2008ko azaroaren 4ko sententzia. Id. Cendoj: 28079130012008100025.

<sup>26</sup> Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 2ko sententzia. Id. Cendoj: 28079130032009100222.



"Elkargoez egiten dituzten eta transzendentzia ekonomikoa duten akordio, erabaki eta gomendioek Lehia Defendatzeari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen 1. artikuluko mugak hartuko dituzte kontuan; hala ere, Elkargoez Lege horretako 3. artikuluan aurreikusten den banako baimena eskatu ahaliko dute". Hala, ondoriozta daiteke Elkargo Profesionalak legez kontrako jarduera lehiakorren subjektu aktibo izan daitezkeela, nahiz eta Zuzenbide Publikoko Korporaziotzat aitortu, horien jokabideek prestazioak libreki eskaintzeari eragiten diotenean; hori dela eta, ezin daiteke modu abstraktu eta hautakorrean zehaztu, beren izaera edo arau-edukiaren ondorioz, lehia defenditzeko legeriatik salbuetsita dagoen elkargo profesionalen funtzioei loturiko jokabiderik."

**27. Elkargoez kasu batzuetan funtzio publikoak betetzeak ere ez du esan nahi lehiaren arauak aplikatzen ez zaizkienik.**

"Lehiaren zuzenbidearen esparruan, enpresaren kontzeptu zabal eta funtzionalak funtzionatzen du; hala, garrantzitsuena ez da jokabidea duen subjektuaren estatus juridiko eta ekonomikoa, baizik eta bere jokabideak merkatuaren lehia emaitza ekonomikoki kaltegarria edo mugatzailea eragitea"<sup>27</sup>.

Hartara, argi dago Administrazioa, lehia libreari eragiten dion jarduera bat gauzatzen duenean, lehia defendatzeko arauen bidez zigortu daitezkeela.

## **2. Txandetan eskaintzen diren zerbitzuei aplikatzekoa den arautegia**

### **A. Zerbitzuak libreki eskaintzeko oinarritzko arautegia**

**28. Zerbitzuen Zuzentarau deritzona barne Zuzenbidera irauli da, "Aterki lege" eta "Omnibus"<sup>28</sup> lege" deritzonen bidez.**

Zerbitzu Zuzentaruak dakarren erreformaren oinarritzko printzipioa da askatasun-arau orokor bat ezartzea zerbitzu-jardueretara eta horien eskaintza libreria sartzeko, zerbitzuak eskaintzeko merkatuan sarrera-barrerak

<sup>27</sup> 2015eko martxoaren 9ko sententzia (294/2013 kasazioa), Gaztela-Mantxako farmazialariak. Paragrafo bera aurki daiteke Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien 3. aretoko 1833/2016 sententzian; 2016ko uztailaren 18a, Andaluziako Junta.

<sup>28</sup> Abenduaren 12ko 2006/123/CE zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa; DOUE, 376. zk., 2006ko abenduaren 27koa, 36. eta 68. orri bitartean.

Azaroaren 23ko 17/2009 Legea (Aterki legea), zerbitzuetako eta horiek jardueretako sarrera libreari buruzkoa; BOE, 283. zk., 2009ko azaroaren 24koa; hori merkatuaren batasuna bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legeak aldatu zuen, BOE, 295. zk., 2013ko abenduaren 10a. Testu finkatua eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2009-18731&b=8&tn=1&p=20131210#a5>. 25/2009 Legea (Omnibus Legea), abenduaren 22koa, zenbait lege aldatu eta egokitzen dituena, zerbitzu-emaile izaera eskuratzeko eta jarduera horretan aritzeko askatasunari buruzkoa. EAO, 308. zk., 2009ko abenduaren 23a, 108507 eta 108578 orrialde bitartean. Testua eskuragarri hemen: [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2009-20725](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2009-20725).



desagerrarazte aldera ("Aterki legearen" 5. artikulua). Hala, herritarrek zerbitzu-  
eskaintzan lehia handiagoa izatearen abantailez goza dezakete.

Horregatik, berariaz adierazten da zerbitzu-jarduera eskuratzeko edo horretan  
jarduteko arautegiak ezin duela egon lurralde-izaerako mugen mende ("Aterki  
legearen" 11.1. artikulua). Printzipio horren salbuespena (11. artikuluko 2. atala)  
da zerbitzuak eskuratzeko edo eskaintzeko baldintzak diskriminatzaileak ez  
izatea, interes orokorreko arrazoi premiatsuekin justifikatuta egotea ("Aterki  
legearen" 3.11. artikuluan dago jasota horren definizioa) eta proportzionatuak  
izatea.

**29.** Merkatuaren Batasuna Bermatzeko Legeak, II. kapituluaren, ezartze-  
askatasuna eta zirkulazio-askatasuna bermatzeko printzipioak ezartzen ditu<sup>29</sup>.  
Berariaz debekatzen ditu bizilekuaren edo establezimenduaren ondorioz libreki  
ezartzea eta libreki zirkulatzea mugatzen duten jarduerak<sup>30</sup>. Salbuespen

<sup>29</sup> 20/2013 Legea, abenduaren 9koa, merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoa (2013ko  
abenduaren 10eko BOE, 295. zk.). Testu finkatua eskuragarri hemen:  
[https://boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2013-12888](https://boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2013-12888).

"3. artikulua. Diskriminaziorik ezaren printzipioa: 1. Eragile ekonomiko guztiek eskubide berak  
izango dituzte lurralde nazional osoan, eta agintaritza eskudun guztiei dagokienez, **ez dira  
diskriminatuko bizilekua edo ezarpen-lekua direla medio**; 2. Jarduera ekonomikoak lortzeari  
edo gauzatzeari buruzko xedapen orokor, administrazio-jardun edo kalitate-arau bakar batek  
ere ezin izango du eduki baldintzarik edo betekizunik ondorio gisa (zuzena edo zeharkakoa)  
eragile ekonomikoaren ezarpena edo bizilekua dela medio diskriminazioa dakartenak. (...); "5.  
artikulua. Agintaritza eskudunen jardunen premia- eta proportzionaltasun-printzipioa; 1.  
Agintaritza eskudunek, dagozkien eskumenak betez, mugak jartzen badituzte jarduera  
ekonomiko bat eskuratzeko edo erabiltzeko, Lege honetako 17. artikuluan ezarritakoaren  
arabera, edo jarduera jakin bat garatzeko baldintzak betetzeko eskatzen badute, horren premia  
argudiatu beharko dute zerbitzu-jardueren eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko  
azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 3.11 artikuluan biltzen direnen artetik **interes orokorreko  
ezinbesteko arrazoiren bat gordetzeko**; 2. Aurreko atalaren arabera, ezarritako edozein muga  
edo baldintza oro argudiatutako **interes orokorreko ezinbesteko arrazoien** arabera  
izango da, eta halakoa izango da **non ezin izango den neurri horiek baino maila gutxiagoko  
neurri murriztailerik edo aldatzailerik ezarri jarduera ekonomikoa gauzatzeko**.

<sup>30</sup> "18. artikulua. Ezarpen- eta zirkulazio-askatasuna mugatzen duten jarduketak; 1. Aginte  
eskudun bakoitzak **bermatuko du onartzen edo indarrean mantentzen diren neurri, muga  
edo baldintzek ez dutela oztupo edo barrerarik sortuko edo mantenduko merkatuaren  
batasunean**.; 2. ezartze librea eta zirkulazio librea mugatzen duten jardueratzat joko dira, Lege  
honen II. Kapituluaren jasotzen diren printzipioak ez betetzeagatik, honako hauek dituzten edo  
aplikatzen dituzten aginte eskudunen ekintza, xedapen eta esku hartzeko neurriak: a) jarduera  
ekonomikoa eskuratzeko edo horretan jarduteko baldintza diskriminatzaileak, abantaila  
ekonomikoak lortzeko edo kontratu publikoak esleitzeko, zuzenean edo zeharka operadorearen  
bizilekuan edo establezimendu-tokian oinarrituta. Betekizun horien artean, honako hauek daude  
bereiziki: 1. Establezimendua edo egoitza soziala aginte eskudunaren lurraldean egotea, edo  
lurralde horren barruan establezimendu fisikoa izatea; 2. Operadorea aldi jakin batean lurralde  
horretan bizi izana edo bertan lan egin izana; 3. Operadorea lurralde horretako erregistroetan  
inskribatuta egon izana. 4. Bere langileak, jabeak edo administrazio-, kontrol- edo gobernu-  
organoetako kideak lurralde horretan bizitzea, edo zuzenean edo zeharka beste toki batzuetatik



moduan, premia- eta proportzionaltasun-printzipioak, eta bereizkeriarik ezaren printzipioa, ziurtatzen dituzten jarduerak onartzen ditu.

## **B. Ofizio-txandaren eta guardia iraunkorraren zerbitzuen arau-esparrua**

### **a. Txanda guztiei aplikatzekoak diren arauak**

**30.** Txandetan eskaintzen diren zerbitzu juridikoetan, Bazkunak aukeratzen du Estatuak ezarritako ordainsaria jasoko duen abokatu<sup>31</sup>.

Legeetan aurreikusitakoarekin bat, abokatuaren laguntza-, defentsa- eta ordezkaritza-zerbitzuak arautzeko eta antolatzeko lana Legelarien Kontseilu Nagusiei dagokie, orobat Abokatuaren Elkargoetako Gobernu Batzordeei (Doako laguntza juridikoari buruzko Legearen 22. artikulua)<sup>32</sup>.

Abokatuaren elkargoek txanda eta baliabideen banaketa-sistema objektibo eta bidezkoak ezarriko dituzte, ofizioko profesionalak izendatzeko (Doako laguntza juridikoari buruzko Legearen 24. artikulua). Agindu horren arabera, derrigorrezkoa da atxilotuei abokatuaren laguntza-zerbitzua eskaintzeko guardia iraunkorreko txanda izatea, baita aurretiazko aholkularitza-zerbitzuak eta abokatuaren laguntza eskaintzeko txanda ere, genero-indarkeriaren, terrorismoaren nahiz pertsonen salerosketaren biktimen, eta abusu edo tratu txarren biktima diren eta desgaitasun intelektual edo buruko gaixotasuna duten pertsonen nahiz adin txikikoen kasuan.

Gainera, Legeak ezartzen du Justizia Ministerioak "ezarri behar dituela doako laguntza juridikoa eskaintzeko **prestakuntza** eta **espezializazio** baldintza minimoak, defentsarako konstituzio-eskubidea bermatzen duen kalitate-maila eta gaitasun profesionala bermatzeko. Baldintza horiek profesional guztiek bete behar dituzte" (Doako laguntza juridikoari buruzko Legearen 25. artikulua)<sup>33</sup>.

---

datozen pertsonak bereizteko baldintzak betetzea; 5. Operadoreak aginte eskudunaren lurralde barruan prestakuntza-ikastaro bat egin behar izatea."

<sup>31</sup> Kasu gehienetan, Orientazio Juridikoko Zerbitzuek izapidetu eta Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak onartu beharreko doako laguntza juridikoa eskaintzeko beharrak eragiten du hori.

<sup>32</sup> 1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa, 1996ko urtarrilaren 12ko BOE, 11. zk.

<sup>33</sup> Aipatutako legea Doako laguntza juridikoaren arautegiak (aurrerantzean, DLJA) garatzen du (doako laguntza juridikoaren Arautegia onartzen duen uztailaren 25eko 996/2003 Errege Dekretua; BOE, 188. zk., 2003ko abuztuaren 7a). Ondoren, abenduaren 2ko 1455/2005 Errege Dekretuak aldatu zuen hori, eta lehengo arau-aurreikuspenak Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak garatutako erregimen berrira egokitu zituen (1/1996 Legearen 3. artikulua 5. atala aldatzen zuena).



**31.** Legeak aipatzen duen ministerio-garapena, bere garaian, 1997ko ekainaren 3ko Agindu bidez egin zen. Horren 1. artikuluko 1. puntuko a) letran abokatuen **prestakuntza eta espezializazioarekin inolako zerikusirik ez duen baldintza** bat ezartzen zen:

**“Ohiko bizilekua eta bulego irekia** izatea dagokion Elkargoaren esparruan eta, Elkargoak lurralde-mugape bereziak ezarrita baditu, bulegoa dagokion lurralde-mugapean izatea, antolamendua eta zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko, Elkargoaren Gobernu Batzordeak salbuesten dituen kasuetan izan ezik.”

**b. Ofizioko txandak eta guardia iraunkorreko txandak, Zuzenbide penal arrunt eta berezian**

**32.** Prozedura Kriminalaren Legearen 520.5 artikuluan, honako hau ezartzen da: (...) "atxilotua bere zaintzapean duen aginteak berehala jakinaraziko dio Abokatuen Elkargoari izendatutako abokatuaren izena edo, hala dagokionean, ofizioko abokatu izendatzeko eskaera".

Izendatutako abokatu ahalik eta azkarren joango da atxilotua dagoen zentrorra, betiere enkargua jaso duenetik hiru orduko gehieneko epearen barruan. Esandako epearen barruan agertuko ez balitz, Abokatuen Elkargoak txandaren araberrako ofiziozko beste abokatu bat izendatuko du zeina ahalik eta azkarren joango baita atxilotuarengana, adierazitako epearen barruan, agertu ez denari legokiokkeen diziiplina-erantzukizuna galdatzearen kaltetan izan gabe.<sup>34</sup>

Lege-agindu hori betetzeko, Bizkaiko Abokatuen Elkargoak ezartzen du abokatuak berehala joan behar duela atxiloteta-zentrorra, betiere, enkargua jaso den unetik 3 orduko gehieneko epean<sup>35</sup>.

**c. Abokatuaren laguntzarako eta aholkularitzarako txandak, genero-indarkeria kasuetan**

**33.** Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurrien Legeak onartzen du genero-indarkeriaren biktimek doako aholkularitza juridikoa jasotzeko eskubidea dutela, salaketa jarri baino lehenagoko unetik bertatik<sup>36</sup>.

<sup>34</sup> Prozedura Kriminalaren Legearen aldaketa, 2015ko abenduaren 2az geroztik indarrean dena, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen duen urriaren 5eko berme prozesalak indartzeari eta ikerketa teknologikoaren neurrien arauketari buruzko 13/2015 Lege Organikoaren bidez.

<sup>35</sup> Ikus Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren 1988ko Ofizio Txandako eta Atxilotuen Laguntza Txandako barne Erregelamenduaren hamahirugarren araua, 1988ko maiatzaren 1az geroztik aplikatzen dena. Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren webgunean eskuragarri: <http://www.icasv-bilbao.com/normativa2.aspx>.

<sup>36</sup> 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa, 2004ko abenduaren 29ko BOE, 313 zk., 42166 eta 42197 orri bitartean. Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 6. artikulua.





Jasandako indarkerian zuzeneko edo zeharkako kausa duten administrazio-prozesu -prozedura guztietan abokatu eta prokuradore baten doako defentsa eta ordezkartzarako eskubidea dute biktinek ere. Prozesu guztiak abokatu berak gauzatu behar ditu.

Genero-indarkeriaren kasuan, abokatuaren laguntza salaketa baten ondorioz edo polizia-etxean atxilotuta egotearen ondorioz gertatzen bada, abokatuak bertaratzeko eskatu zaion zentzora al bait bizkorren joan behar du<sup>37</sup>.

**34.** Legelarien Euskal Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurtasuna Saila zenak hitzarmen bat sinatu zuten, genero-indarkeriari eta sexu-erasoei loturiko biktimei doako eta berehalako laguntza juridikoa eskaintzeko<sup>38</sup> (170 eta 178 bitarteko orriak).

"Eskuragarritasun" izenburua duen zortzigarren klausulak honako hau xedatzen du: "laguntza juridiko espezializatua behar bezain bizkor eskaini ahal izateko, abokatuen elkargoek zaindu behar dute eskaera jasotzen den unetik abokatuak bertaratu arte al bait denbora gutxien igarotzea, arreta al bait bizkorren bermatzeko -polizia-etxeetatik edo epaileak egindako eskaeretan ez du ordu eta erdi baino gehiago izan behar-, ezinbesteko kausa arrazoituen edo ustekabeen kasuan salbu".

---

<sup>37</sup> 1/2004 Legearen 20. artikulua: "Laguntza juridikoa: 1. Auzitan jarduteko baliabide nahikorik ez dutela ziurtatzen duten eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, Doako Laguntza Juridikoari buruzko 1/1996 Legean ezarri bezala, Abokatu eta Prokuradorearen doako defentsa eta ordezkartza izateko eskubidea dute, kausa zuzen edo zeharkako kausatzat jasandako indarkeria duten administrazio-prozesu eta -prozedura guztietan. Kasu horietan, abokatu beraren zuzendaritzak hartuko du bere gain biktimaren defentsa. Eskubide horiek berak izango dituzte kausadunek, biktima hilez gero. Nolanahi ere, berehala bermatuko zaie defentsa juridiko, doako eta espezializatua eskatzen duten genero-indarkeriaren biktima guztiei, eta ondoren doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea aitortzen ez bazaie, abokatuari bere esku-hartzeak eragindako zerbitzu-sariak ordainduko dizkiote.

2. Edozein kasutan, genero-indarkeriaren biktimen defentsa eta laguntza juridikoa bermatu behar denean, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearekin bat jardun behar da.

(...) 4. Era berean, Abokatuen Elkargoek ofizioko abokatuak premiaz izendatzeko beharrezko neurriak onartuko dituzte, genero-indarkeriak eragindako prozeduretan.

<sup>38</sup> Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren pertsonen berehalako laguntza juridikoa emateko hitzarmena, 2007ko otsailaren 26koa. Administrazio-espeditzeko 170. orritik 178. orrira bitartean eskuragarri.



#### **d. Adin txikikoen eta atzerritarren arloko txandak**

**35.** Atxilotutako adin txikikoen kasuan, abokatuak dagokion zentrorra albait bizkorren joan behar du, adin txikikoaren atxilotetak ezin baitu 24 ordu baino gehiago iraun<sup>39</sup>.

Bestalde, Doako laguntza juridikoari buruzko Legearen 2.g) artikulua ezartzen du berehala eskaini behar zaiela doako laguntza juridikoa pertsonen salerosketaren (...) biktimei, biktima-izaerarekin lotura duten edo horren ondorio diren prozesu guztietan; halaber, berehala eskaini behar zaie doako laguntza juridikoa adin txikikoei eta desgaitasun intelektuala edo buruko gaixotasuna duten pertsoneri, abusu-egoeren edo tratu txarren biktima direnean<sup>40</sup>.

**36.** Atzerritarren kasuan, Espainian dauden atzerritarrei espainiar herritarren baldintza beretan eskaini zaie doako laguntza juridikoa, parte hartzen duten prozesu guztietan eta jarraitzen duten jurisdikzioa edozein izanik ere (Atzerritarrei buruzko 4/2000 Lege Organikoaren 22.1 artikulua).

#### **C. Txandek behar bezala funtzionatzeko kontrol-arauak**

**37.** Elkargoaren barne Erregelamenduko hemezortzigarren arauak (182. orria) ofizioko txandaren eta atxilotuen laguntzarako txandaren Segimendu Batzordea ezartzen du eta horren funtzioak zehazten ditu:

"Ofizioko txandaren eta atxilotuen laguntzarako txandaren Segimendu Batzorde iraunkorra sortuko da. Dekanoa izango da horren Presidente eta horrek izendatzen dituen kideek osatuko dute. Nolanahi ere, batzordeko kide izango dira gaiarekin harremana duten elkargoko batzorde guztiak. Honako funtzio hauek izango dituzte:

1. Laguntza-txandako izendapenen banaketa eta ordainketa kontrolatzea.
2. Txandako gaien segimendua egitea, beharrezkoa denean, Abokatuari horien martxari buruzko informazioa eskatuz.
3. Esangura eta premia bereziko kasuetan, Gobernu Batzordeak egiten dituen izendapenak ezagutzea.

<sup>39</sup> 5/2000 Lege Organikoaren 17.4. artikulua (urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena; 2000ko urtarrilaren 13ko BOE, 11.zk.).

<sup>40</sup> Ildo berean, Lege horren beraren 6. artikulua zehazten du, auzitan aritzeko baliabideak izan ala ez, aurreko paragrafoetan jasotzen diren kasuetan (besteak beste, adin txikikoen babesa, abusu-egoeren edo tratu txarren biktima direnean), doako laguntza juridikoak barne hartuko dituela doako aholkularitza eta orientazioa, salaketa edo kereila jartzen den unea baino berehala lehenago.



4. Izendapenaren berezko betebeharrak betetzen ez dituzten abokatuen txandako eta laguntza-txandako behin-behineko baja adostea, eta Gobernu Batzordeari dagozkion diziplina-neurriak har ditzan proposatzea.
5. Uneko txandaren eta laguntzaren funtzionamenduan gertatzen diren gertakari eta kexak aztertzea eta ebaztea.
6. Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Ospetsuarekiko lankidetzat estua ezartzea, bi elkargoetako profesionalen artean zorrotasunez betetzeko orotariko izaerako jakinarazpen eta komunikazioak eta, bereziki, bisten data-zehaztapenak eta gainerako epedun jarduerak, elkarri lana alaitz gehien erraztuz.
7. Organo judizialekin aldi behin kontaktuak mantentzea.
8. Gobernu Batzordeak eskuordetutako eta arau hauetan ezarritakotik ondorioztatzen den beste edozein funtzio.

**38.** Ofizioko Txandaren Erregelamenduko hemezortzigarren Arau Orokorrak "Ofizioko Txanda eta Atxilotuei Laguntzeko Txanda erregulatzen dituzten arauak dagozkien" arau-haustea erregulatzen ditu". Falta oso astunak, astunak eta arinak jasotzen ditu<sup>41</sup>.

**39.** Ofizioko Txandako Erregelamenduko hemezortzigarren Arau Orokorrean jasotzen dira zigorrak<sup>42</sup>. Zigor horien artean daude sei hilabeteko zerbitzu-etenaldia, falta arinetarako, eta hiru urteko gehieneko etenaldia, kasu

---

<sup>41</sup> Honako hauek falta oso astunak izango dira: 1) Bista batera justifikatu gabe ez bertaratzea; 2) Izendatu den 24 orduko guardia justifikatu gabe ez egitea; 3) Atxilotuei Laguntzeko Txanda egiten dutenen kasuan, izendatutako aldi irisgarri ez egotea, banako laguntza egiteko; 4) Izendatutako laguntza- eta / edo orientazio-txandara justifikatu gabe ez bertaratzea; 5) Ofizioko Txandako bezeroaren ordainsaria jasotzea, horretarako eskubidea izan gabe; 6) Auzi penalean adostasuna agertzea, ageriko ausarkeriaren ondorioz; 7) Zerbitzuak, laguntzak edo izendapenak bereganatzea.

Falta astunak hauek izango dira: 1) Laguntza-partea aurreikusitako epean ez bidaltzea; 2) Zerbitzuan baimendu gabeko ordezkapena egitea, bai ordezkoaren eta bai titularraren kasuan; 3) Izendatutako zerbitzuratzean, justifikatu gabeko atzerapena izatea; 4) Epaitegian atxilotuaren laguntza aintzat ez hartzea, Komisarian laguntza eman ostean; 5) Jasangarritasun-falta alegazioak, ageriko ausarkeriaren ondorioz gertatzen direnean; 6) Txandako bezeroarengandik ordainsaria jasotzea, horretarako eskubidea dagoenean, edo aurkako kasuan, kosten kondenaetik, Elkargoari jakinarazi gabe; 7) Zerbitzua eskuratzeko bateraezintasun-kausaren bat ezkutzea; 8) Hala dagokionean, bilaketarako gailua ez hartzea guardia hastean edo ez itzultzea, aurreikusitako epean, behin guardia amaitutakoan; 9) Elkargoari dokumentazioa ez eskuratzeko, eskatzen zaionean; 10) Bi falta arin egitea hiru hilabeteko aldi.

Falta arinak izango dira: 1) Aurreko paragrafoan zerrendatutako faltak, astuntzat hartzeko behar adinakoak ez direnean; 2) Txanda edo Zerbitzu bakoitzeko arau espezifikoak betetzean arduragabekeriak jardutea.

<sup>42</sup> Ofizioko Txandaren eta Atxilotuen Laguntzaren Erregelamenduaren aldaketa, Bazkunaren Gobernu Batzordeak 2014ko maiatzaren 21ean onartu zuena (166. orria). Eskuragarri hemen: <http://www.icasv-bilbao.com/images/circulares/2014/ReglamentoTurnoOficio.pdf>.



larriagoetarako; eta zerbitzuetatik behin betikoz baztertzea, berrerortzeen kasuan. Zigorrek jardun profesionalari ere eragin diezaiokete.

### 3. Tipikotasuna

40. Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikulua honako hau xedatzen du:

“1. Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki-motak egongo dira debekatuta:

(...)

- b) Produktzioa, banaketa, garapen teknikoa edo inbertsioak mugatu edo kontrolatzea.
- c) Merkatua edo hornigaien iturriak banatzea.

41. Bizkaiko Abokatuen Bazkunak ukatu egin dio Madrilen eta Getxoko mugapean bulegoak dituen eta Bizkaiko eta Madrilgo elkargoetako kide den abokatu bati, nahiz eta bi elkargotako kide izatea beharrezkoa ez den, Bizkaiko Bazkuneko ofizioko txandan eta guardia iraunkorreko zenbait laguntza-zerrendatan izena ematea<sup>43</sup>.

Ondorioz, abokatuari dagozkion txandetan zenbait zerbitzu eskaintzeko aukera ukatu dio.

42. Zalantzarik gabe, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak aholkularitza- eta defentsa-zerbitzuen kalitatea bermatzeko arauak ezarri behar ditu, lehen ikusi dugun moduan, abokatuak ez baitituzte bezeroek aukeratzen eta, kasu gehien-gehienetan, administrazioak araututako prezioaren truke eskaintzen baitituzte zerbitzuak.

Egiaztatu dugun moduan, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak sortu duen kontrol-sistemari esker, egiazta daiteke noiz hausten diren tutoretza judizialaren printzipioak, abokatuen ofizioko txandako eta guardia iraunkorreko txandetako ekintza edo ez-egiteen ondorioz.

Ebazpen honen 37. artikuluan jasota dagoen moduan, txanden Segimendu Batzorde iraunkorra sortu da, besteak beste, izendapenen banaketa kontrolatzeko, gaien segimendua egiteko, betebeharrak betetzen ez dituzten

<sup>43</sup> Ikus ekainaren 7ko 5/1996 Errege Dekretua, Lurzoruaren eta Elkargo Profesionalen alorreko neurri liberalizatzaileei buruzkoa (1996ko ekainaren 8ko BOE, 139. zk., kolegiatze bakarra ezartzen duena). Baina Bazkunaren barne-erregelamenduak txandetan erregistratzeko baldintzatzat ezartzen du Bazkun **honetan** izena emanda egotea, arau-agindua alde batera utzita.



abokatuen baja adosteko eta txanden funtzionamenduan egon litezkeen keak aztertu eta ebazteko.

Sistema horrekin batera, falta-erregimen bat dago, ikusi dugun moduan, falta oso astun, astun eta arinak zehazten dituena. Falta horiek zigor proportzional eta disuasorioak ekartzen dituzte (39. paragrafoa), txandetako abokatuek beren betebeharrak betetzen ez dituzten kasuetarako.

Hortaz, Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren barruan, txandetan estaltzen den zerbitzua (doako justiziaren babespean egon zein ez) arduradunek behar bezala bete dezaten bermatzeko xedea duen sistema bat dago.

Hain zuzen ere, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak, gauzatu dituen eta espedientean aztertzeko eskatu zaizkion kontrol-prozedura guztiak organismo horri bidali ez dizkion arren, 2010. urtetik 2015. urtera bitarteko 24 espedienteen sorta bidali ditu (hautaketa Bazkunak berak egin du) (25. paragrafoa), kontrola egiten dela egiaztatzeko helburuarekin.

Arau horietako bati esker, Bazkunak ofizioko abokatu berria izendatu dezake lehen abokatu Bazkunak emandako epean agertzen ez den kasuetan, agertu ez den abokatuari diziplina-ardura eskatzeari kalte egin gabe. Ikusi dugun moduan, Bazkunak diziplina- eta zigor-sistema bat du, eta horretan jasota daude zerrendetatik aldi baterako kanporatzeko aukera eta aldi baterako abokatutzatik kanporatzeko aukera.

Beraz, Bazkunak badu sistema bat, elkargokide baten *praxis* okerraren kasuetan ere, bezeroaren babes judizial efektiboa ez murrizteko.

**43.** Bazkunaren arau eta formularioetan, bulego profesionala eta ohiko bizilekua txandari dagokion barruti judizialari dagokion mugapean izatea eskatzen da. Barne Erregelamenduak formalki ohiko bizilekua Bizkaian izatea baino eskatzen ez duen arren, Bazkunak 1997ko Ministerio Agindua onartu duela dio, bizilekuaz gainera, dagokion lurralde-mugapean "bulego irekia" izatea eskatzen duena. Aginduak ezartzen duena alde batera utzita, zerrendetan izena emateko agirietan, Bazkunak bulego irekia eta ohiko bizilekua izena eman nahi den zerrendei dagokien barruti judizialean izatea eskatzen du.

Eskakizun horiek sarrera-oztopoa dira, zerbitzua eskaintzeko kualifikazio profesionala duten abokatuentzako.

Gainera, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak, espediente honetan, bi arrazoi gehiago aurkeztu ditu, salatzaileari txanden zerrendetan izena ematea ukatzeko. Bazkunaren hitzetan, aurreko arrazoiaren interpretaziotik ondorioztatzen dira bi arrazoi horiek: abokatuaren bulego "nagusia" ez dago dagokion mugapean eta Madrilgo Abokatuen Elkargoko txandetan izena emanda dago.



Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Kode Zibilaren 3.1 artikulua honako hau aurreikusten duela: "Arauek euren hitzez-hitzezko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta". Bada, ez dirudi arauaren "esanahia bera", "errealitatea" (soziala edo beste), izpiritua eta helburua Bazkunak adierazten duenarekin bat datozenik. Arrazoi horiek ez dute berriarazko oinarriarik arau juridiko zehatz batean eta Bazkunak ez dauka argitaratuta, beraz Bizkaiko Bazkunaren txandetan izena eman nahi duten abokatuak ezin dituzte aurreikusi.

Bazkunak ofizioko txandak eta laguntzarako guardia iraunkorrak antolatzen ditu hainbat arlotan, eta bere jarduerarako lurralde-zatikatzea sortzen du (barruti judizialeetan, eta beste probintzia batzuekiko desberdinduta) zerrendetan jasotzen diren zerbitzuetan. Egiaztatu behar da edukia beharrezkoa al den eta interes orokorra defendatzeko arrazoietan oinarrituta al dagoen, diskriminatzailea ez den eta lortu nahi den helburuarekiko proportzionala den. Ondoren, antijuridizitatean, aztertuko da muga horrek lege-babesik al duen.

Abokatuak ofizioko txandan eta guardia iraunkorreko txandetan eskaintzen dituzten zerbitzuak arinki desberdinak direla kontuan hartuta, analisi berezia egitea komeni da.

## **A. Abokatuaren guardiako laguntza**

**44.** Guardiako laguntza-modalitate guztietan beharrezkoa da berehalakotasuna, lagunduko den pertsonaren defentsa-eskubidea dela eta; beraz, berehalakotasuna bermatu behar da. Ikus dezagun Bazkunak ezarritako eskakizunak zein heinetaraino diren ezinbestekoak zerbitzua eskaintzeko orduan berehalakotasuna bermatzeko.

### **a. Ohiko bizilekua barrutian izateko betebeharra**

**45.** Bazkunak ohiko bizilekua mugapean izatea eskatzen du, eta ez ohiko bizilekua Bizkaian izatea, 1997ko Ministerio Aginduak egiten zuen moduan. Bazkunak bere argudioetan onartzen du betekizun hori, arauetan jasota dagoena, ez dela eskatzen kasu batzuetan -adibidez, defentsa-agiria izenpetzen duen abokatuaren kasuan-.

Onartzen badugu betekizun hori beharrezkoa eta nahikoa dela zerbitzua eskaintzeko orduan berehalakotasuna bermatzeko, onartu beharko genuke Bizkaiko mugapeetako batean ohiko bizilekua duten pertsonak beti daudela lurralde horretan, eta kanpoan bizi direnak ezin dituztela behar adina eman mugapetik gertu, guardiari erantzun ahal izateko.





Ebazpen honetako 23. paragrafoko taularekin bat, atxilotuen laguntza-guardiak 6,89 jarduera ditu urtean Barakaldon, eta hori altuena da. Atzerritarren arloan, batez bestez, urtean behin jarduten eta Indarkeria arloan, hiru aldiz baino gutxiago.

Aurrekoa ikusita, esaten badugu ohiko bizilekua barruti judizialek kanpo duen eta txandetan izena emanda dagoen pertsona batek ezin duela zerbitzua berehalakotasunez eskaini, onartu beharko genuke barrutitik kanpo bizi den pertsona batek ezin duela fisikoki egon dagokion epaitegi edo komisariatik arazoizko erantzun-erradioan, urtean 7 egunetan baino gutxiagotan.

Agerikoa da bezeroei berehalako arreta ematen zaiela bermatzeko, badaudela ohiko bizilekua mugapean izateko betekizuna bezain murriztaileak ez diren metodoak. Hain zuzen ere, ohiko bizilekua Bizkaian eta, are gehiago, dagokion barruti judizialean, izatea eskatze hutsak ere ez du balio Bazkunak ezarritako helburua betetzeko, eta neurrigabea da.

**46.** Bazkunak Ebazpen Proposamenean iradokitzen den aukera kritikatzeko, alegia, guardiak irauten duen bitartean abokatua arreta emateko moduko erradioan egotearena. Ulertzen du "ariketa teoriko eta dialektiko antzua" dela.

Baieztape hori mantentzeko, onartzen du ez dela bizilekua probintzian edo mugapean egotea eskatzen, Bazkunak oinarri hartzen duela dioen Ministerio Aginduak eskatzen duenaren eta arauen literaltasunaren beraren aurka.

Argudioetan inkoherentzia egon arren, Lehiaren Euskal Kontseilua bat dator Ebazpen Proposamenarekin, hots, Bazkunak bermatu behar duena berehalakotasun erreala dela laguntza eskaintzeko orduan; halaber, guardian zehar berehalakotasuna bermatuko duen gertutasun-erradio bat ezartzea (aldeztatik Bazkunak planifikatuta) ez da soilik bideragarria, izan ere, neurri horrek salatzailea eta antzeko profesionalak zerbitzuak sartzeko ahalbidetuko luke.

**47.** Horrek argi uzten du aukera erreal eta egingarriak daudela, Bazkunak ezarritakoa bezain murriztaileak ez direnak.

**b. Bulegoa barrutian izateko eta bulego hori "nagusia" izateko betebeharra**

**48.** Betekizun horren egokitasun eta beharra oso zalantzarria da, zerbitzua eskaintzarekin loturarik ez duen baldintza bat ezartzen duelako, kontuan hartzen badugu laguntza "ohiko bulegotik" kanpo eskaintzen dela, bulego publiko edo epaitegietan, alegia.



Abokatua bere "ohiko bulegoan" egotea irizpide lausoa da, guardiako laguntza eskaini ahal izateko baldintzetan. Bazkunak jotzen du guardia-deiari erantzuten zaionean bulego profesionaletik irteten dela abokatua. Baina guardiako abokatua bulegoaz bestelako toki batean egon liteke (gainera, bulego horrek nagusia edo ohikoa izan behar du) guardian dagoen urteko 7 egunetan.

**49.** Edozelan ere, kontuan hartuta, legearen arabera, guardietarako erantzundenbora maximoak hiru ordu eta ordu eta erdi bitartekoak direla, arreta al bait bizkorren eskaini behar den arren, ezin da jo bulegoa hiru ordura baino askoz gutxiagora dagoen mugape batean (eta ordu eta erdira baino gutxiagora ere bai) egotea beharrezkoa edo proportzionala denik zerbitzua urtean 7 egunetan eskaintzeko (ikusitako dugun moduan, gehienez ere urtean 7 egunetan egiten dira guardiak).

Gainera, Bazkunak sakontasunez eta arretaz antolatzen du laguntza-zerbitzua eta, horri esker, profesionalek behar adina denboraz jakiten dute zer datatan egongo diren guardiak. Hartara, guardiak planifikatu ditzakete, beren betekizunak al bait bizkorren betetzeko, mugape horretan bulego irekia izan gabe ere. Beraz, eskakizun hori ez da ezinbestekotzat hartzen.

**50.** Gainera, Barakaldon, Getxon eta Bilbon (guztietara ere metroz iritsi daiteke, 15 minututan) egindako guardia kopuruan diferentziak daude, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak ezarritako barrera artifizialen bidez lurraldea zatikatu delako.

**51.** Aipatutako Wouters sententziak adierazten du Bazkunak aplikatutako edozein neurri murriztailek "ezinbestekoa" izan behar duela, lortu nahi den helbururako.

Salatzaileak, bulego profesionala Getxon duenak, ikusten du zerrendetan izena ematea eragozten zaiola, bulego hori "ohikoa" edo "nagusia" ez delako, nahiz eta normaltasunez jarduten duen doako laguntza juridikoarekin harremanik ez duten beste arlo profesional batzuetan.

2015ean, salatzaileak, batezbestekoa bete balitz, atxilotuei laguntzeko 6,75 guardia egingo zituzkeen; 1,05 guardia atzerritarrei laguntzen; eta 2,74 guardia, indarkeriaren biktimei laguntzen.<sup>44</sup>

**52.** Bizkaiko Abokatuen Bazkunak "bulego nagusi" deritzona izan ezean, Bazkunaren arabera, ohiko bizilekua izan beharko da bertan. Bazkunak

---

<sup>44</sup> Datu hori atxilotuei laguntzeko guardien urteko eta barruti judizialeko batezbestekoen taularekin bat dator.



azaltzen du argitaratutako baldintzak ez direla betetzen, adibidez, bizilekua Gipuzkoan duen abokatu batek eskakizunak betetzen dituenean, "ohiko bulegoa" Bilbon izateagatik; baina alde batera uzten du guardiak gutxienez 24 ordu irauten dituela, eta ez dela aurreikusten abokatu ordu horietan guztietan fisikoki bere bulego profesionalean egongo denik.

Bestalde, bulego profesionala barruti judizialean egon dadin eskatzen denean, helburua zerbitzua al bait bizkorren eskaintzea bada, eskakizun horrek ez du behar bezala bermatzen helburu hori. Izan ere, adibidez, bulego profesionala Mungian duen profesional batek denbora gutxiago beharko du Bilboko Epaitegira heltzeko (22 minutu kotxez) bere barruti judizialeko epaitegira, hots, Gernikako Epaitegira heltzeko baino (39 minutu)<sup>45</sup>.

**53.** Hori guztia dela eta, ondoriozta daiteke eskakizun hori ez dela ez ezinbestekoa eta ez egokia, lortu nahi den helburua lortzeko.

**c. Beste Elkargo bateko txandetan erregistratuta ez egoteko betebeharra**

**54.** Bazkunak argudiatzen du salatzaileak ezin duela Bizkaiko txandetan erregistratu, jadanik Madrilgo Elkargoko txandetan erregistratuta dagoelako.

**55.** Argudio horrek ez du inongo harremanik babes judizial efektiboa bermatzearekin. Kontuan hartzen badugu txandetako guardietan batez bestez zenbat aldiz parte hartzen den, erabat posible da abokatu bat guardia duen barruti judizialek behar bezain gertu egotea, Elkargo batean baino gehiagotan.

Bermatu beharrekoa da ofizioko txanda batean erregistratzen den abokatuak konpromisoa hartzen duela, guardia duenean, litekeen dei bati denboraz erantzun ahal izateko distantzian egongo dela.

Kontuan hartzen badugu guardian dagoen abokatuak fisikoki hartu eta itzuli behar duela Bazkunean pertsona-bilagailua, guardiako deiei erantzun ahal izateko, erraza da abokatuak guardia egingo duen mugapetik gertu dagoela bermatzea.

---

<sup>45</sup> Kontsulta Google Maps-en egin da. Mungiako udalerritik Gernika-Lumoko eta Bilboko justizia-jaregietarainoko distantzia. Gauza bera gertatzen da Bizkaiko barruti judizial mugakideetan bulegoa duten profesionalekin (Castro Urdiales, Barakaldo edo Bilborekiko; eta Amurrio edo Laudio, Bilborekiko).



## B. Ofizioko txanda

**56.** Kasu honetan, arautegietan ez da ezartzen arreta berehala eskaintzeko eskakizunik babes judizial efektiboaren printzipioak eskatzen duenaz haratago eta, jakina, Bazkunak printzipio hori betetzen lagundu behar du, nahiz eta arretak prozedura guztian zehar iraun. Kasu horietan, abokatuarekiko bilerak prozedura osoak dirauen bitartean egiten direnean, arrazoizkoa dirudi bezeroarekin beharrezko bilerak egiteko aukera eskatzea.

Auzitegi Gorenak 1996an adierazi zuen bizilekua Bazkunaren esparruan izateak ezin duela betekizuna izan ofizioko txandan aritzeko<sup>46</sup>.

23. paragrafoko taularekin bat, honako hauek dira ofizioko txandetako kasuen urteko batezbestekoak, espezialitate desberdinetan: 7 baino gutxiago, arlo penal arruntean; 4 baino gutxiago, indarkerian; 2, atzerritarren arloan; eta urtean 1 baino gutxiago adin txikikoen espezialitatean, penal berezian eta espetxe-arloan.

### a. Ohiko bizilekua Bizkaian edo barrutian izateko betebeharra

**57.** Bazkunak abokatuaren eta bezeroaren arteko harremana egokia izatea eskatu behar die herritar baten abokatu-defentsaz arduratzen diren profesionali. Abokatuaren defentsa egokia izango bada, diligenzia profesional galdagarriz egin ahal izateko moduko tratua eskaini behar da.

Baina abokatu bakoitzeko urteko gai kopuruak ez du justifikatzen Ministerio Aginduak ezarritako Bizkaian ohiko bizilekua izateko betekizuna, eta are gutxiago barruti judizialean bizitzekoa, Bazkunak eskatzen duen moduan.

Bazkunak berak alegazioetan onartzen duen moduan, urteko batez besteko 6,5 kasu baino gutxiago hobezin kudeatu ditzake mugapetik eta probintziatik kanpo bizi den abokatu batek.

Bazkunak ezartzen duen lurralde-zatiketak, hain zuzen ere, eragin dezake horren diferentzia handiak egotea mugape bakoitzeko jarduera kopuruan (adibidez, Barakaldon ofizioko 9 jarduera eta Bilbon, berriz, 3, bi barruti horiek metroz elkarrengandik 15 minutura egon arren).

Hori dela eta, betekizun hori desagerrarazi egin daiteke zerbitzuaren bermeak eta kalitatea murriztu gabe, eta abantaila nabarmenak eragin ditzake mugapeen eta lurralde mugakideen arteko distantziak kontuan hartuta.

Salatuak berak onartzen duenez betekizun hori ez dela baliozkoa, Lehiaren Euskal Kontseiluak arautegitik kanpo utz dezan eskatzen dio.

<sup>46</sup> Auzitegi Gorenaren 1996ko azaroaren 22ko sententzia. Aranzadi RJ\1996\8068.



## **b. Bulegoa barrutian izateko eta bulego hori "nagusia" izateko betebeharra**

**58.** Antzeko zerbait esan daiteke Ministerio Aginduak eskatzen duen bulegoa izateko betekizunari eta Bazkunak, bere jarduera eta alegazioetan, "ohiko bulego edo bulego nagusi" bihurtu duenari buruz.

Bazkunak, abokatu-bezero harremanetan intimitatea bermatzeko, eskatu ahalko du abokatuak helburu hori berma dezakeen egitura bat izan dezaten eskura; baita, Ebazpen Proposamenak ezartzen duen moduan, bulegorik ez duten abokatuei lokalak eskaintzea edo alokatzea ere<sup>47</sup>.

**59.** Salatzaileak bulego irekia du Bizkaian, eta bere kasuan, are nabarmenagoa Bazkunak uko egiteko erabili dituen argudioen funsgabetasuna.

Abokatu salatzaileak badu bezeroei behar bezalako arreta eskaintzeko moduko toki bat, baina Bazkunak ez du bere erregistroa onartu nahi, bulego hori "nagusia edo ohikoa" ez dela arrazoituz. Horretarako, inolaz ere justifikatu ezin den interpretazio erabat murriztailea egiten du.

Bezeroarekin harreman pertsonal eta zuzena izateko betekizuna bizilekua bertan duten abokatuei ere eskatzekoa da, baina Bazkunaren arau edo argudioetan ez da inon ere agertzen eskakizun hori edo Bazkunak hori kontrolatzen duenik. Berrito ere, bereizkeriaz jarduten du.

## **c. Elkargo baten baino gehiagoren txandetan izena emateko debekua**

**60.** Bazkunak, salatzaileari erantzuten dionean, bere alegazioetan adierazi du ofizioko txanda batean baino gehiagotan erregistratuta egoteak bateraezintasuna dakarrela.

**61.** Eskakizun horrek ez du oinarririk, eta salatzaileari emandako erantzunetik eta Bazkunaren argudioetatik ondorioztatzen da.

Gainera, ez dago inolaz ere justifikatuta. Izan ere, abokatu batek, zalantzarik gabe, urtean ofizioz artatu beharreko gaiak baino askoz gehiagotan jardun dezake (Bizkaian 6,5, gehienez ere).

Bazkunak lurralde-zatiketak lege-babesa zuen garaiko oroitzapena mantendu nahi du, arauetan egon diren aldaketak eta behar bezalako arreta eskaintzea ahalbidetzen duten garraibideetako aurrerapenak kontuan hartu gabe.

---

<sup>47</sup> Kanariar Uharteetako hiru Abokatuaren Elkargoaren arautegiek ezartzen dute profesionalak beharrezko azpiegitura izan behar dutela, defenditzen duten pertsonari behar bezalako arreta eskaini ahal izateko, alegia, espazio fisiko zehatz batean arreta emateko aukera eskatzen dute.



## C. Ondorioa

**62.** Lehiaren Euskal Kontseilua bat dator instrukzioarekin, esaten duenean Bazkunaren eskakizunak ez direla beharrezkoak, edo ezinbestekoak Wouters sententziaren harira, antolatzea dagokion zerbitzua behar bezala eskaintzen dela bermatzeko orduan.

Laguntza prozedura guztian zehar eta Bizkaiko organo desberdinetan eskaini behar izateak, Bazkunak arrazoitzen duen moduan, ez ditu aurreko baieztapenak aurkatzen. Alegia, ez du esan nahi abokatuen dedikazioa eta eskuragarritasuna eskakizun hori betetzen ez duten abokatuena baino handiagoa izango denik.

25/2009 Legea onartu zenetik, txandetan mugarik gabe erregistratzeko askatasuna lehenetsi behar da, zerbitzua behar bezala eskaintzen dela bermatzen den bitartean. Aukeratzeko askatasun horrek zerbitzua betetzeko ardura ere dakar berarekin, eta hori Bazkunak ezartzen duen diziplina-erregimen eraginkorraren bidez babesten da.

Hori da, hain zuzen ere, Kanariar Uharteetako hiru Abokatu Elkargoek onartutako soluzioa, nahiz eta, elkargoak uharte desberdinetan egoteagatik, garraio-zailtasun handiagoak dauden Bizkaiko Bazkunaren esparruan baino<sup>48</sup>. Ikus, halaber, Alcala de Henares, Valentzia eta Madrilgo kasuak<sup>49</sup>.

---

<sup>48</sup> Las Palmasko, Tenerifeko Santa Cruzeko eta Palmako Santa Cruzeko Elkargoek beren estatutuak aldatu dituzte, eta lurralde-eskakizun guztiak desagerrarazi dituzte. Hala, abokatuen esku utzi dute ofizioko txandetako eta / edo guardia iraunkorreko txandetako zerrendetan izena emateko edo kanpo geratzeko erabakia. Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordeak onartutako ohiko bukaera-ebazpena eta Lehiaren Kanarietako Agintearen 2015eko uztailaren 30eko proposamena. Espedientea: SACAN/29/13. Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordearen (CNMC) webgunean eskuragarri: [https://www.cnmc.es/sites/default/files/683252\\_6.pdf](https://www.cnmc.es/sites/default/files/683252_6.pdf).

Las Palmasko Abokatuen Elkargoaren kasua transkribatzen da, nahiz eta Palmako eta Tenerifeko Santa Cruzeko Abokatuen Elkargoetako erregulazioa bat datorren. MLEBaren Lehiaren Aretoaren Ebazpeneko Bosgarren Zuzenbide Oinarriaren transkripzio partziala da, Lehiaren Kanarietako Aginteari helarazitako 2015eko uztailaren 30eko Ohiko Bukaerako proposamena onartzen duena.

“1º Lurraldetasuna. Izena ematea eskatzen duten abokatuak guardiako zerbitzuak justifikatu gabeko atzerapenik gabe eskaintzeko eskuragarri egon behar dute, eta hori haiek baloratzekoa da.

Abokatuaren laguntza-zerbitzuetarako, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko, pertsonen salerosketaren biktimei, abusuen edo tratu txarren biktimei diren adin txikikoei eta desgaitasun intelektuala edo buruko gaixotasuna duten pertsonen laguntzeko guardia iraunkorreko txandetan izena eman ahal izateko, zerbitzura alaitz bizkorren bertaratu ahal izan behar da, enkargua jasotzen denetik, herritarren babes judizial efektiboa izateko eskubidea zaintze aldera. Gainerako kasu guztietan, zerbitzua denbora erabilgarrian eskaini behar da, herritarren babes judizial efektiboaren eskubidea urratu ez dadin.





**63.** Horrekin guztiarekin, ondoriozta daiteke Bizkaiko Abokatuen Elkargoak ofizioko txandak eta guardia iraunkorreko txandak antolatzeko ezartzen dituen eskakizun eta bateraezintasunak ez direla egokiak, beharrezkoak, proportzionalak edo ez-diskriminatzaileak, laguntza juridikoko zerbitzua behar bezala bermatzeko helburua betetzeko.

Are gehiago, Bazkunak ezartzen dituen oztopoek eragotzi egiten dute hainbat profesional kualifikatuk zerbitzu horretan parte hartzea.

Horrek zerbitzuen merkatua zatikatu egiten du Bizkaia barruan (mugape desberdinetan libreki jardutea eragozten baita), eta Bizkaiaren eta beste probintzia batzuen artean.

Bazkunak neurri horien bidez lortu nahi duen ustezko helburua, Bazkunak ezarritako kontrol- eta diziplina-sistemaren bidez bermatzen da. Babes judicial

---

Las Palmasko Abokatuen Elkargoak (ICALPA) ez du aurreikusten inolako eskakizun espezifikorik zerrendetan sartzeari eskatu duen abokatuarentzat, eta ez du eskatzen halako eskuragarritasunik froga dezaten ere. Araua programatikoa edo adierazpenezkoa baino ez da, eta abokatuak baloratzea da zerbitzuan izena ematen dutenean, izan ere, abokatuak dagokie erabakitzea eskuragarri dauden ala ez, zerbitzua emateko justifikazio gabeko atzerapenak izateak sor ditzakeen ondorio negatiboekin.

Abokatuak barruti judicial zehatz batekin duen nahitaezko lotura desagerrarazi egingo da eta, hala, abokatuak ICALPAren lurralde-esparru guztian eskaini ahalko ditu zerbitzuak, nahi izanez gero, eta abokatu bakoitzak erabakiko du zer barrutitan eskaini nahi dituen zerbitzuak.

Edozein kasutan, aplikatzekoak diren lege-arauetan edo horien garapenean ezar litezkeen baldintzak errespetatuko dira, eta erabat errespetatuko dira lehia erregulatzen duten arauak.

2. Azpiegitura. Abokatuak defendatzen duten pertsonari arreta behar bezala eskaintzeko beharrezko azpiegitura izan behar dute, eta horrek esan nahi du espazio fisiko zehatz batean arreta emateko aukera izan behar dutela.

3. Aurretiazko prestakuntza, espezializazioa eta esperientzia. Aplikatzekoak diren lege-arauetan edo horien garapenean ezar litezkeen prestakuntza-eskakizun minimoak bete daitezzen eskatuko da soilik.

4. Zerbitzuan sartzeko epeak. Zerbitzuan sartzeko aukera beti egongo da irekita, eta abokatuak nahi dutenean eskatu ahal izango dute zerbitzuan sartzeari, alegia, ICALPAren edozein lanegunetan.

5. Zerrendak. ICALPAk atxilotuei abokatuaren laguntza-zerbitzua eskaintzeko guardia iraunkorreko txanda ezarriko du, baita aurretiazko aholkularitza-zerbitzuak eta abokatuaren laguntza eskaintzeko txanda ere, genero-indarkeriaren, terrorismoaren nahiz pertsonen salerosketaren biktimen, eta abusu edo tratatu txarren biktima diren eta desgaitasun intelektual edo buruko gaixotasuna duten pertsonen nahiz adin txikikoen kasuan. Era berean, jurisdikzio-aginduen arabera zerrendak ezarriko ditu, eta ez da egongo abokatuak eragin dakiekeen zerrenda arteko bateraezintasunik."

<sup>49</sup> Beste hirurei dagokienez, ikus 2015eko irailaren 1eko Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordearen Ebazpena, Guadalajarako Abokatuen Elkargoa, Espedientea: 0491/13.



efektiboaren printzipioari ez zaio eragiten, Bazkunak zerrendako hurrengo abokatuari deitzeko ahalmena baitu, arazorik badago, eta zerbitzua betetzen ez duen abokatuak jasaten dituen ondorioek lortu nahi den helburua bermatzen dute.

**64.** Bazkunak ezartzen dituen eskakizunak jokabide debekatua dira, Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 1.1 artikularekin bat; izan ere, akordio baztertzaila da, profesional lehiatzaileak zerbitzuan sartzea mugatzeko eta abokatuen zerbitzuen merkaturia banatzeko, Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren lurralde-esparruko ofizioko txandei eta guardia iraunkorrei dagokienean<sup>50</sup>.

Muga horiek, gutxienez, Erregelamendua indarrean sartu zenetik gaur egun arte aplikatu dira, modu jarraituan eta etenik gabe.

#### **4. Antijurizitatea**

##### **A. Doako laguntza juridikoari lehia-arautegia ustez ez aplikatzea**

**65.** Zerbitzu publikoen merkaturia lehiaren arautegien mende dago eta **justifikatu gabeko** edozein muga Zuzenbidearen aurkakoa da<sup>51</sup>.

**66.** Bazkunak argudiatzen du ofizioko eta guardiako txandak "Konstituzioan ezarritako prestazio-eskubide / -betebeharra" direla, zerbitzu publiko bat egotea dakarrena, eta, hortaz, lehia-arautegia ez dela aplikagarria.

**67.** LEAk ez du zalantzan jartzen doako laguntza juridikoko zerbitzuak eskaintzea elkargokideek herritarrei eskainitako eta Konstituzioan ezarritako zerbitzua denik. Baina Bazkunak egindako alegazioa baztertu egin behar du, esaten duenean zerbitzu publiko baten eragin zuzenak lehiaren arautegia ez aplikatzea dakarrela.

Lehia Defendatzeari buruzko Legeak ez du inolako sektore ekonomikorik bere aplikazio-esparrutik kanpo uzten; beraz, Bazkunak ezin dizkie sartzeko barrerak ezarri zerbitzua eskaini nahi duten operadoreei eta ezin du zerbitzua zatikatu.

---

<sup>50</sup> Ikus, besteak beste, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Sententzia, C-189/02 P. Dansk Rorindustri gaiari dagokionean.

<sup>51</sup> Auzitegi Gorenaren 2015eko martxoaren 9ko sententzia. Id. Cendoj. 28079130032015100061.



## B. Bazkunaren jokabideak eragiten dion "merkatua" egotea

68. Abokatuak zerbitzu bat eskaintzen dute, prezio baten truke, ofizioko txandetan eta guardia iraunkorretan jarduten dutenean. Horiei esker, herritarrei abokatuaren defentsa edo arreta eskaintzen zaie, doako justiziaren onuradun izateko lege-betekizunak betetzen dituztenean. Halaber, abokatuak izendatzeko balio dute (doako justiziatik kanpo), partikularrak abokaturik ez izendatzea erabakitzen duenean.

Lehen kasua da ohikoena. Horretan, zerbitzuaren prezioa ez du abokatuak libreki zehazten, eta bigarren kasuan, berriz, bai. Bi kasuetan, gaiaz arduratzen den abokatuak Bazkunak prestatutako zerrenden bidez zehazten da.

Zerrendetako kide den abokatuaren bezeroak ezin du (doako justiziaren kasuan) edo ez du nahi (gainerako kasuetan) lagunduko dion abokatuak aukeratu. Doako justiziako kasuetako abokatuak (gainerakoetan ez bezala) ezin du bere ordainsaria erabaki, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek zehazten eta ordaintzen du hori.

Edozelan ere, abokatuaren defentsa ororen helburua bezeroen interesak zaintzea eta al bait babes handiena eskaintzea da. Abokatu pribatu baten zerbitzuen erabiltzaileek eta doako justizia zerbitzuaren erabiltzaileek abokatu-zerbitzua behar dute gatazka jakin bat ebazteko. Bi kasuetan, diru-kantitate batekin ordaindutako lan profesionala dago, eta Bazkunaren jarduketak eragina du merkatu horretan.

Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenak, 2016ko martxoaren 28ko sententzian, jo zuen Elkargoak "merkatuari" eragiten diola, doako laguntza juridikoari loturiko txanden harira jarduten duenean. Sententzia horren 3. FJan honako hau adierazten zen<sup>52</sup>:

**"Kasu honetan, Elkargo profesionalak, bere erregulazioaren bidez, Abokatutzako profesionalen merkatuan eragiten du, abokatuaren berezko jardueraren profesionaleko bat, abokatuak bakarrik gauzatu dezaketena, doako laguntza juridikoaren zerbitzuan sartzea eta hori eskaintzea baita.** Doako laguntza juridikoko txandetako zerrendetan libreki sartzea baldintzatzen duen erregulazio murriztaileak nahitaez eragiten dio abokatuak kapitalizatzen duten merkatuari, hau da, Wouters sententziaren harira: "bere izaeraren, erregulatzen duten arauen eta helburuaren ondorioz, truke ekonomikoetatik at geratzen diren jarduerari ez zaizkio aplikatzen Ituneko lehiari buruzko arauak", baina dagokigun kasuan ez da hala, kasu honetan,

<sup>52</sup> Andaluziako Auzitegi Nagusiaren 2016ko martxoaren 28ko sententzia. Id. Cendoj.: 29067330032016100001. Sententzia honek bertan behera uzten du dagokion Elkargoari jarritako zigorra, justifikatu ahal izango dugun moduan, aztertutako kasuan hautematen ez diren arrazoiengatik.



jarduerak transzendentzia ekonomikoa baitu eta abokatutzako profesionalen merkatuari eragiten baitio<sup>53</sup>.

Andaluziako sententziaren laburpenean jasotzen den moduan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Wouters sententziak lehia-arautegiak aplikagarriak ez direla zehazten duen egoera ez da betetzen kasu honetan, transzendentzia ekonomikoa duen eta Bazkunak mugatzen duen jardueraren aurrean baikaude<sup>54</sup>.

Hau da, zerbitzu honetan, prestazio-baldintzak erregulazio jakin batek zehazten ditu, interes orokorreko helburu zehatz bat betetzeko, eta horrek merkatu bat sortzen du, non ez baitiren beharrezkoak ez diren barrerak sortu behar.<sup>55</sup>

**69.** Bizkaiko Abokatuen Bazkunak argudiatzen du bere jarduera ezin dela lehiaren ikuspegitik aztertu, txandak ez direlako operadoreen artean lehia dagoen merkatu bat, eskaintza ezin delako bereizi ez prezioan eta ez zerbitzuaren kalitatean, eta bezeroek ezin dutelako nahi duten operadorea aukeratu. Hori dela eta, zerbitzu juridiko horiek emateko barrerak eta lurralde-zatikatzea ez direla lehiaren ikuspegitik aztertu behar.

Bazkunak, argudio horrekin, alde batera uzten ditu hemen aztertzen den kasuaren antzekoak diren hainbat kasu, non lehiaren arauak, hain zuzen ere, operadore gaituen merkatu erregulatu ugarietako sarbide librea babesten baituten. Izan ere, alegazioetan ezerk ez du justifikatzen zerbitzua eskaintzeko gaituta dauden abokatuen sarbidea mugatzea. Zerbitzu arautua egoteak ere ez du justifikatzen lurraldea zatikatzea. Bestalde, sarbidea lurraldeka mugatuz eta, hortaz, merkatua tokiko operadoreen artean banatuz, mugatu egiten da zerbitzu publikoa eskaintzeko aukera duten profesional gaituen kopurua, ahaztu gabe

---

<sup>53</sup> Justizia Auzitegiaren 2002ko otsailaren 19ko sententzia. As C-309/99. Wouters eta bestek planteatutako gai aurrejudiziala.

<sup>54</sup> Lehiaren Euskal Kontseiluak ezagutzen du Andaluziako Justizia Auzitegi Goreneko aipatu sententziak bertan behera uzten duela Andaluziako Lehiaren Defentsarako Kontseiluaren 2014ko irailaren 29ko zigor-ebazpena, ebazpen honetan azalduko dugun moduan, guri dagokigun kasuan betetzen ez diren zenbait arrazoi direla eta.

<sup>55</sup> Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 1991ko apirilaren 23ko Sententzia, gaia: C-41/90, Klaus Höfner eta Fritz Eiser vs Macrotron GmbH.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2000ko irailaren 12ko Sententzia, pilatutako gaiak: C-180/98 eta C-184/98 bitartean, Pavel Pavlov eta beste vs Stichting Pensioenfonds Medische Specialisten.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2006ko uztailaren 18ko sententzia, gaia: C-519/04 P, David Meca Medina vs Igor Majcen.



zerbitzu publiko horren garrantzia itzela dela, Konstituzioan aurreikusita eta Europar Batasuneko arauetan bermatuta egotera<sup>56</sup>.

Bazkunaren alegazio hori, beraz, baztertzea da.

### C. Litekeen lege-babesa

**70.** Bestalde, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 4.2. artikulua honako hau xedatzen du: «arauan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, baldin eta lege-babesik gabe burutzen badira». Beraz, lege-mailako arau batek argi baimentzen ez badu behintzat, aurrekarietan deskribatutako jarduerak lehia-zuzenbidearen mende daude.

Auzitegi Gorenak, lehen aipatu dugun 2015eko martxoaren 9ko sententzian, honako hau adierazten zuen:

"Azken batez, 15/2007 Legearen 4.1 artikulua asmoa ez da Lehiaren Zuzenbidearen aplikazio-esparrutik kanpo uztea arau baten babesean egiten den edozein jardura, baizik eta, soilik, Lege batek xede zehatz batekin (berariaz edo modu inplizituan) 15/2007 Legearen 1. artikuluko debekuen aplikazio-esparrutik kanpo uzten dituen jarduerak."

Hau da, administrazioak ezin du, arau baten babesean, lehiaren aurka egin, horretarako lege-mailako arau batek egon behar baitu, lehia defendatzeko arauetatik kanpo uzteko xedearekin.

**71.** Bazkunak argudiatzen du bere jokabideak lege-babesa duela, Bazkunaren barne Erregelamenduak 1997ko Ministerio Aginduari buruz egiten duen egokitzapen informal, baina beharrezkoa, delako. Lehiaren Euskal Kontseiluaren ustez, horri dagokionean, zenbait gai hartu behar dira kontuan.

#### **a. Bazkunaren jarduerari Ministerio Agindua aplikagarri zaion, edo hura baino murriztaileagoa den, analisia**

**72.** Aztertu behar da Bazkunak zein heinetaraino errespetatzen duen Ministerio Aginduak ezartzen duena, edo Aginduak ezartzen duenaz haratago al doan.

**73.** Bazkunaren barne Erregelamenduko laugarren arauak eskatzen du jarduten duten abokatuak "**Bazkun honetako kide**" izatea eta **Bizkaian bizitzea**.

<sup>56</sup> 2006/123/EE Zuzentaraua, aipatua.



Bazkunak adierazten du arau horrek eskatzen duenari dagokion lurralde-mugapean bulego irekia izatea gehitu diola, 1997ko Ministerio Aginduak hala xedatzen duelako.

Bazkunaren Informazio Buletinak (espedientearen 161. orria) eta Ofizioko Txandan eta Atxilotuei Laguntzeko Txandan izena emateko Buletinak (webgunean argitaratua) "profesionalei **bizilekua eta bulegoa Barruti Judizialean**" izateko eskatzen die (hamahirugarren paragrafoa).

**74.** Bazkunak barruti judizialean bizitzea eskatzen du eta, izena eman nahi izanez gero, agindu eta formularioen hitzez hitzezko interpretazioa egin behar da.

Eskakizun hori Ministerio Aginduarena baino are murriztaileagoa da, Ministerio Aginduak lurralde-mugapean bulego profesionala izatea eskatzen baitu, baina ez bizilekua izatea.

**75.** Bazkunak, bere alegazioetan, ukatu egiten du Bazkunaren arautegia Ministerio Aginduak xedatutakoa baino murriztaileagoa denik:

"Ohiko bizilekuaren" kontzeptua ez dator bat abokatuaren ohiko egoitza edo egoitza personalaren kontzeptuekin (auzotartasun zibila), baizik eta jarduten duten eta lan egin ohi duten bulegoaren kokapenarekin.

Hau da, Bazkunak, txandetako zerrendetan sartzeko, ohiko bizilekua alde batera uzten du, baina dagokion lurralde-mugapean bulego profesional "ohikoa edo nagusia" izateko eskakizun berria ezartzen du. Hala, Bazkunak ez du soilik eskatzen abokatuak dagokion txandaren mugapean bulego profesionala izatea, alegia, Aginduan edo testu formal (Erregelamenduan) edo informaletan (webgunean eta gidetan) jasota ez dagoen *ex novo* eskakizun bat ezartzen du, bulegoak "ohikoa edo nagusia" izan behar duela xedatuz.

Eskakizun horrek nabarmen gainditzen du Bazkunak argudiatzen duen lege-babesa, bi eskakizun gehitzen baititu (barruti judizialean bizilekua izatea eta ohiko bulegoa izatea), Aginduak 1997an ezarri zuen eta ondorengo lege ugari aurkatu zuten lurralde-zatikatzea larritzeko.

**b. Maila baxuagoko arau zaharrago batek maila altuagoko eta ondorengo zenbait arauen eskakizunak alda ditzake**

**76.** Gogoan izan behar da Bazkunak ezarritako murrizketa eragozten duten arau guztiak barne Erregelamendua eta aipatutako Agindua **baino berriagoak eta hierarkikoki maila altuagoak** direla. Zuzentaraua 2007koa da, Aterki Legea eta *Omnibus* Legea 2009koak dira eta Merkatuaren Batasunari buruzko Legea, 2013koa.





Argi dago Erregelamenduak eta ofizioko eta guardiako txanden antolamenduak aipatutako arauen aurka egiten dutela eta onartezina dela **abokatu**en Bazkunak (Erregelamenduaren edukia ofizioz eta modu informalean eguneratu duenak, errespetatzen eskatzen duen Ministerio Agindura egokitze) barne-araua eta horren aplikazioa berriagoak eta maila hierarkiko altuagoak diren arau horietara guztietara ez egokitzea. Gainera, dakigunez, ez du aplikatutako neurriaren beharraren eta proportzionaltasunaren analisia ere egin.

Horrez gain, gogoan izan behar da Aginduak 1/1996 Legea garatzen duela, alegia, "**prestakuntza** eta **espezializazio** eskakizun minimoak ezartzen" dituela, baina, egiazta daitekeen moduan, horrekin zerikusirik ez duten eskakizunak ezartzen ditu (11. eta 179. orriak).

**77.** Beraz, ezin da onartu espediente honetan aztertzen den jokabidearen lege-babesari buruz Bazkunak egiten duen alegazioa. Harrigarria da, Europar Batasunaren Zuzenbidearen lehentasun-printzipioak eta efektu zuzeneko printzipioak aplikatzean, Bazkunak nabarmen printzipio horien aurka egiten duten arautegiak aplikagarritzat jotzen jarraitzea.

#### **D. Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 1.3 artikulua aplikatzeko aukera**

**78.** 1.1 artikuluko debekua salbuetsi egin daiteke, hirugarren paragrafoan jasotzen diren baldintzak betetzen badira:

1. paragrafoko debekua ez dute bete beharko akordio, erabaki, gomendio eta praktika batzuek, baldin eta horien bidez ondasun eta zerbitzuen produkzio, merkaturatze eta banaketa hobetzen laguntzen bada, edo aurrerabide tekniko edo ekonomikoari laguntzen badiote; horretarako ez da aldez aurretiko erabakirik behar izango, ondorengo kasuetan:

- a) Kontsumitzaile edo erabiltzaileei lortzen diren onuretan bidezko modu batean parte hartzen uztea.
- b) Interesa duten enpresei helburuak lortzeko ezinbestekoak ez diren mugak ez jartzea, eta
- c) Aurreikusten diren produktu edo zerbitzuen zati handi baten inguruan lehia desagerrarazten ez uztea, parte hartzen duten enpresei."

Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 50. artikulua honako hau xedatzen du:

Lege honen 1. artikuluko 3. paragrafoan xedaturikoa oinarri hartuta babesa eskatzen duten enpresek edo enpresa-elkartek paragrafo horretan bertan aipatzen diren baldintzak betetzen direla frogatu beharko dute.

**79.** Bazkunak argudiatu du Ebazpen Proposamenak ez duela egiaztatzen Bazkunak eta Ministerio Aginduak ezarritako eskakizunek 17/2009 Legearen



3.11. artikuluan eskatzen diren behar- eta proportzionaltasun-printzipioen aurka egiten dutenik. Baieztapen hori aldezteko, Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenaren Malagako Administrazioarekiko Auzien Aretoaren 2016ko martxoaren 28ko 646/2016 sententzia aipatzen eta partzialki transkribatzen du<sup>57</sup>.

Sententzia horrek onartzen du eskualde-banaketa malgutzea posible dela ofizio txandetako zerbitzua eskaintzeko, baina guardia iraunkorreko txanden kasuan zorrotzagoa da; azken kasu horretan, aholkularitza juridikoa eskaintzera al bait denbora laburrenean bertaratzea eskatzen baitu. Sententziak jotzen du Lehiaren Andaluziako Agintearen ebazpenak ez duela frogatzen proportzio-falta dagoenik Malagako Abokatuaren Elkargoak aplikatutako erregulazioan, eta Andaluziako Aginteari aurpegiatzen dio baldintzak ez dituela behar bezala aztertu proportzio-faltaren epaia eman aurretik, abokatuaren eta onuradunaren komunikazio-erraztasunean oinarritzen baita, orobat distantzia geografikoa handiagoa izateak ez duelako nahitaez berehalakotasunean eragiten, komunikabideen kalitatea eta garraio bide publikoak kontuan hartzen baditugu. Sententziak eskatzen du frogatu behar dela distantzia handiagoa izateak ez duela nahitaez esan nahi denbora gehiago beharko denik laguntza juridikoa eskaintzeko, eta erantzun-denboren garrantzia nabarmentzen du.

Gai horiek guztiak aztertu dira espedientearen instrukzioan eta agerian utzi da Bazkunaren eskakizunak ez direla egokiak lortu nahi den helburua erdiesteko; halaber, agerian utzi da beste elkargo batzuetan (hala nola Madrilén edo Alcalán) lehiaren arau ez-murriztaileak abian jarri direla eta horrek frogatzen duela eskakizun hori ez dela ezinbestekoa, eremu mugakideetan (Castro Urdiales, Audio, Amurrio) bulegoa duten profesionalen parte hartzea eragozten zaielako eta bulegoa Bizkaian duten, baina urrutiago dauden eta barruti judizialeko udalerrira nagusira hurbiltzeko erantzun-denbora handiagoa behar duten, profesionalen berriz, parte hartzea ahalbidetzen zaielako.

**80.** Espediente honetan, Bazkunak lehen eskakizunari buruzko argudioak eskaini ditu, eta adierazi du inposatutako mugek zerbitzua hobetzen laguntzen dutela. Lehiaren Euskal Kontseiluak jotzen du egiaztatuta geratu dela Bazkunak ezarritako eskakizunak ez direla beharrezkoak lortu nahi den helburua erdiesteko eta, gainera, ez dutela nahitaez helburu horiek lortzen laguntzen.

Horrez gain, Bazkunak ez ditu aztertzen Lehia Defenditzeko Legearen 1.3 artikulua aplikatzeko gainerako betekizunak. Ez du egiaztatzen helburuak lortzeko ezinbestekoak ez diren murrizketak inposatzen ez dituenik. LEAk, hain

<sup>57</sup> Andaluziako Auzitegi Nagusiaren 2016ko martxoaren 28ko sententzia. Id. Cendoj.: 29067330032016100001.



zuzen ere, agerian utzi du inposatutako murrizketak ez direla ezinbestekoak lortu nahi den helburua erdiesteko.

Halaber, ezin da esan, eta Bazkunak ez du egiaztatu, lehia zerbitzutik erabat desagerrarazten denik, Bazkunak modu eskusiboan arautzen baitu.

Hori dela eta, LEAk ezin du bere gain hartu gai hori.

## 5. Erantzukizuna. Erruduntasuna

**81.** Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 63. artikuluan honako hau ezartzen da: Lege honetan xedatutakoa nahita edo utzikeriagatik urratzen duten eragile ekonomikoei zigorrak ezarriko dizkiete horretarako eskumena duten organoek.

Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin bat etorriz —Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ere jasotzen du 2011ko azaroaren 14ko 761/2011 epaian eta 2012ko otsailaren 6ko 73/2012 epaian—, administrazio-esparruan jokabide bat zigorgarria izan dadin, ez da nahikoa jokabide arrunta eta antijuridikoa izatearekin, horrez gain beharrezkoa baita erruduna izatea ere.

**82.** Bizkaiko Abokatuen Bazkunak, batetik, betekizunak eskatzen ditu (Bizkaian edo barruti judizialean bizi zela; bulegoa edo bulego "nagusi eta ohikoa" izatea) eta Elkargo baten baino gehiagoren txandetan erregistratuta egotea debekatzen du. Ondorioz, sarrera-barrerak ezartzen ditu bi zerbitzutarako: ofizioko txandarako eta guardia iraunkorreko txandarako.

Aipatutako betekizunek *Omnibus* Legearen eta Merkatuaren Batasunari buruzko Legearen aurka egiten dute, beraz ez dute babesik Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 4.1. artikuluan, horrek ezartzen baitu lege-mailako araua beharrezkoa dela jokabide bat salbuetsi ahal izateko.

Hain zuzen, ezin da esan betekizun horiek 1997ko Ministerio Aginduan ere babesik dutenik, agindu horrek bizilekua probintzian izatea eta bulego profesionala mugapean izatea eskatzen baitu. Arau horiek lehia mugatzen duten eta, hortaz, zalantzarriak diren arren, askoz murriztaileagoak dira Bizkaiko Abokatuaren Bazkunaren eskakizun eta jardura baino; izan ere, Bazkunak, borondatez eta kontzienteki ezarri du beharrezkoa ez den merkatuaren lurralde-banaketa artifiziala, idatzizko arauetan jasota ere ez duena.

Gainera, Bazkunak erabiltzen duen Aginduak berak jasotzen du Bazkunak aukera duela bulego profesionala izateko eskakizuna, zerbitzua hobeto antolatzeko eta eraginkorragoa izateko.



Pentsaezina da abokatuen elkargo profesional batek arau-hierarkiaren printzipioaren funtzionamendua ezagutzen ez duenik, esaten duenean Ministerio Agindu batek, maniobratzeko marjina emateaz gainera, Zerbitzuen Zuzentaraua iraultzen duen Legea eta Merkatuaren Batasunari buruzko Legea urratzeko aukera ematen diola. Are sinestezinagoa da Bazkunaren jarduna are murriztaileagoa izatea babesten omen duen Agindu hori baino<sup>58</sup>.

**83.** Lehen ikusi dugu aplikazio-arautegi bera duten Kanariar Uharteetako Abokatuen Elkargoek Zerbitzuen Zuzentarauarekin eta hori iraultzen duten legeekin bat datorren erregulazioa erabiltzen dutela, lehia askeko arautegietara moldatuz.

Ez dira kasu bakarra. Alcalá de Henaresko Abokatuen Elkargoak ere ez du lurralde-izaerako inolako betekizunik eskatzen. Hori agerian utzi zuen MLEBaren 2015eko martxoaren 12ko ebazpenak<sup>59</sup>:

"Nolanahi ere, Lehia Defendatzeko Zerbitzua ez dator salatzaileen iritziarekin bat, eskatzen dutenean Alcalá de Henaresko Abokatuen Elkargoak OM/97 erabat bete behar duela; izan ere, lehiaren zuzenbidearen ikuspegitik, jotzen du Alcalá de Henaresko Abokatuen Elkargoak lehiaren alde jardun duela, bere lurraldean ofizioko txandan sartzeko oztopoak desagerrarazi baititu. Hori frogatuta dago eta salatzaileek berek ere onartzen dute, doako laguntza juridikoa eskaintzen duten abokatuen kopuruak gora egin baitu Alcalá de Henaresko Abokatuen Elkargoaren mugapean azken bi urteetan.

Madrilgo Abokatuen Elkargoari dagokienez, 2013ko urriaz geroztik bulego irekia izatea bakarrik eskatzen duenez (eta ez ohiko bizilekua) ofizioko txandan jarduteko, Lehia Defendatzeko Zerbitzuak jotzen du Elkargo horri ez zaiola zigorra ezarri behar OM/97 ez betetzeagatik. Hala eta guztiz ere, Lehia Defendatzeko Zerbitzuak ikusten du asimetria dagoela, Alcalá de Henaresko Elkargoak ez duelako bizilekua edo bulegoa izateko eskatzen, eta Madrilgo Elkargoak, berriz, bulego irekia izatea eskatzen duelako.

Azken batez, Lehia Defendatzeko Zerbitzuak ondorioztatzen du arazoa errotik konpondu behar dela, Espainiako merkatu guztian eskaintza-baldintzak berdindu ahal izateko. Hori dela eta, Madrilgo eta Alcalá de Henaresko Elkargoei eskatzen die OM/97 ez aplikatzeko, lehiaren aurkakoa delako, edo isilbidez indargabetutakotzat jotzeko. Bestalde, Lehia Defendatzeko Zerbitzuarentzako, Elkargoek OM/97 ez betetzeak sarrera-barrerak desagerrarazten ditu aztertutako merkatuan eta, ondorioz, arau-hauste hori ez litzateke zigortzekoa."

<sup>58</sup> Ikus Auzitegi Gorenaren 1999ko otsailaren 1eko sententzia. Erreferentzia: Aranzadi RJ\1999\1633. Auzitegi Gorenaren 2007ko abenduaren 18ko sententzia. Erreferentzia: Aranzadi RJ\2007\9084.

<sup>59</sup> Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordearen (MLEB) 2015eko martxoaren 12ko ebazpena. Espedientea. SAMAD/04/2013 ICAMICAAH. 8 abokaturen salaketa, Alcalá de Henares, Guadalajara eta Madrilgo Abokatuen Elkargoen aurka. Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordearen (CNMC) webgunean eskuragarri: <https://www.cnmc.es/expedientes/samad0413>.



Bestalde, MLEBaren 2015eko irailaren 1eko Ebazpeneko bosgarren egitatean Guadalajarako Abokatuen Elkargoa eta Espainiako Abokatutza Kontseilu Nagusia zigortu ziren, orain aztertzen ari garen jokabideen antzekoengatik; horretan, hiru Elkargo aipatzen ziren (Valentziakoa, Madrilgoa eta Alcalá de Henareskoa), bizilekua Elkargoaren lurralde-esparruan izateko eskakizuna desagerrarazi zutelako. Espainiako Abokatutza Kontseilu Nagusiaren Presidenteak "oso larritzat" jo zuen jardunbide hori eta Elkargoei "ekintza-batasuna" eskatu zien<sup>60</sup>. MLEBaren ebazpen horrek 400 elkargokide inguru dituen Guadalajarako Elkargoari 30.000 euroko zigorra ezarri zion, eta Espainiako Abokatutza Kontseilu Nagusiari, berriz, 60.000 eurokoa.

Hau da, jakina da Bizkaiko Bazkunak badakiela, gutxienez, Kanariar Uharteetako hiru abokatuen elkargok, eta Valentziako, Madrilgo eta Alcalá de Henaresko abokatuen elkargoei ofizioko txandak eta guardia iraunkorrak lehia-arautegia errespetatuz arautzea erabaki dutela. Horrek argi uzten du muga horiek ez direla beharrezkoak, baina ez hori bakarrik; argi uzten du, halaber, Bizkaiko Bazkunak Lehia Defendatzeari buruzko Legea hausten duen eta lehia defendatzen duten aginteek zigortu duten jarduera bati eutsi nahi diola.

**84.** Azaldutako guztia ikusita, Bizkaiko Bazkunean Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 1. artikuluko arau-haustearen elementu subjektiboa dagoela.

**85.** Bazkunak argudiatu du Lehiaren Defentsarako Gaztela eta Leongo Auzitegiaren ebazpena dagoela, Valladolideko Elkargoaren aurka abian jarritako espedientea artxibatzen duena, jotzen duelako 1997ko Ministerio Aginduak Elkargo horren jokabidea babesten duela.

Aurrekari hori ez da aplikagarria gure kasuan. Izan ere, Valladolideko Elkargoak izandako jokabideak modu mugatuan aplikatzen du Ministerio Agindua, ohiko bizilekua eta bulego profesionala probintziako (hiru barruti judizial ditu) edozein puntutan izatea eskatzen baitu. Bestalde, Bizkaiko Bazkunak agindu horretan babesik ez duten zenbait betekizun eskatzen ditu.

**86.** Ondorioz, argi geratu da borondatezko elementua egonik, Bazkunak ez duela betetzen Bizkaian zerbitzu eman nahi duten eta eskuragarri agertzen diren abokatuei sarrera eskaintzeko betebeharra, babes judizial eraginkorraren printzipioa lehiaren aurka egin gabe bermatuz.

---

<sup>60</sup> Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordearen (CNMC) 2015eko irailaren 1eko ebazpena. Espedientea. S/0491/2013 GUADALAJARAKO ABOKATU ELKARGOIA. Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordearen (CNMC) webgunean eskuragarri:<https://www.cnmc.es/expedientes/s049113>.



**87.** Frogatutako gertakarien ardura Bizkaiko Bazkunari dagokio soilik, haren aurka eman baitzaio hasiera espedienteari, Bazkuna baita Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 1. artikuluko b) eta c) paragrafoetako arau-hausteen erruduna eta arduraduna.

## **6. Zehapenaren zenbatekoa ezartzea**

**88.** Bizkaiko Abokatuen Bazkunak kolusio-jokabidea du, lehiatzailetzat (edo, gutxienez, lehiatzaile potentzialtzat) hartu behar diren abokatuen sarbidea mugatzen duten akordio edo erabakiak hartzen baititu, Bazkunak zerbitzu hori emateko baimendu dituen profesionaletikiko.

Prezioan lehiarik egon ez arren, Bazkunak Bizkaia barruan eta Bizkaiaren eta beste probintzia batzuen artean egin dituen lurralde-banaketak, eta eraiki dituen sarrera-barrerak direla-eta, profesional batzuk diru-sarrera handiagoak izan ditzakete beste batzuk baino. Gainera, zerbitzuaren kalitatean eragin dezake horrek ere, artifiziarki mugatzen delako zerbitzurako eskuragarri dauden operadoreen kopurua, eta horrela, profesional batzuk beste batzuk baino diru-sarrera handiagoak izan ditzaketelako beste batzuk baino. Deigarria da atxilotuei laguntzeko urteko guardien kopuruak oso desberdinak direla Barakaldon (6,89) edota Bilbon (2,54), ondo komunikatutako (metroz ere bai) barruti judizial mugakideak izan arren; salatzaileari behintzat, zerbitzua emateko aukera ukatu zaio.

Hori Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 62.4 a) artikulua arau-hauste oso astuna da, eta guardiako txandetako eta ofizioko txandetako abokatu-zerbitzuei eragiten die. Aipatu den artikuluan honako hau xedatzen da arau-hauste oso astuntzat:

- a) Kolusiozko jokaerak aurrera eramatea lege honen 1. artikuluan aurreikusitako moduan, baldin eta jokaera horiek elkarri lehia egiten dioten benetako enpresa edo enpresa potentzialen arteko kartel, akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako praktikak edo nahita paraleloak badira.

**89.** Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 63. artikulua arabera, arau-hauste oso astunak zehatzeko, isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan zuen negozio-bolumenaren % 10era arteko isuna jarri dakioko araua hautsi duen enpresari.

Negozio-bolumena mugatzea posible ez denean, arau-hauste astunak 10 milioi eurotik gorako isunarekin zigortuko dira.



**90.** Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 64. artikularekin bat, isunen zenbatekoa, besteak beste, ondorengo irizpide hauek kontuan izanda zehaztuko da:

- a) Arau-haustek eragiten dion merkatuaren neurria eta ezaugarriak.
- b) Erantzulea den edo diren enpresen merkatu-kuota.
- c) Arau-haustearen zenbaterainokoa.
- d) Arau-haustearen iraupena.
- e) Arau-haustek zer nolako ondorioak izan dituen kontsumitzaile eta erabiltzaileen edo beste operadore ekonomiko batzuen eskubide eta bidezko interesetan.
- f) Arau-haustearen ondorioz lortutako legez kontrako onurak, eta enpresa arduradun gutzien zirkunstantzia larrigarri eta aringarriak.
- g) Erantzulea den enpresa bakoitzaren kasuan, zer nolako gertakari astungarri edo aringarriak dauden.

**91.** Eragindako merkatuak Bizkaiko doako laguntza juridikoaren zerbitzu osoa hartzen du barne. Izan ere, Bazkunak zerbitzua babes judizial eraginkorra bermatzeko moduan zeuden abokatuei mugatu egin die ofizioko txandetan eta guardia iraunkorretan jarduteko aukera. Eusko Jaurlaritzak urtean 6.517.912 euro bideratzen ditu Bizkaiko doako justiziarako, eta hori da aztertutako jokabidearen funtsezko atala. Halaber, doako justiziaren babespean ez dauden ofizioko laguntza juridikoko zerbitzuen merkatuari eragiten zaie.

Bizkaiko Abokatuen Bazkuna da Bizkaiko txandak eta laguntza-guardia iraunkorrak antolatzen dituen bakarra.

Bazkunak ezarritako lurralde-mugek eta sarrera-barrerek zaildu egiten dute eskatutako irizpideak betetzen ez dituzten abokatuak merkatuan sartzea. Salatzailearen kasuan, agerikoa da Bazkunak sarrera ukatu zionean eman zituen erantzunak arauetan jasotakoaz haratago doazela. Jokabide horrek zerbitzuari zuzenean eragiten dio.

**92.** Aurrekari ugari zigortu dituzte uneko kasuan aztertutako neurriak bezain murriztaileak ez diren beste batzuk; halaber, nabarmentzekoa da lehen aipatu dugun beste zigor bat, MLEBak Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari (Bizkaiko bazkuna horren kide da) jarritakoa, aztertutakoaren antzeko jokabide baten ondorioz.

**93.** Arau-haustea gertatu den aldia aztertzen badugu, zenbait gai hartu behar dira kontuan.

Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 1. artikulua urratzen duen eta Bazkunak zehazten duen muga, gutxienez, 1988ko maiatzaren 1az geroztik ezarri da,





data hartan sartu baitzen indarrean Bizkaiko Bazkunaren Ofizioko Txanden eta Atxilotuei Laguntzeko Txanden Erregelamendua, eta orduan sortu baitziren txandak.

Elkargo profesionalen neurri liberatzaileei buruzko Errege Dekretu Legeak 1996an onartu zuen lanbide kolegiatuak lehia askearen erregimenaren mende zeudela, eta kolegiatze bakarria ezarri zuen Estatu osorako.

1997an, 7/1997 Legea onartu zen, 1997ko apirilaren 16an indarrean sartu zena<sup>61</sup>.

2009ko abenduaren 27an indarrean sartu zen Elkargo Profesionalei buruzko Legearen 2.4. artikulua indarreko bertsioa, ezartzen duena Elkargoen akordio, erabaki eta gomendioek Lehia Defendatzeari buruzko Legearen mugak errespetatuko dituztela.

Bazkunaren guardiako txanden eta ofizioko txanden antolamendua zaharragoa izan arren, Lehiaren Euskal Kontseilua bat dator instrukzioaren irizpidearekin, alegia, arau-haustea *Omnibus* Legea indarrean sartu zen unean hasi zen, 2009ko abenduaren 27an.

Arau-haustearen amaiera-datari dagokionez, oraindik ere irauten du eta ez da zigor-espeditu irekiera hau amaitu ere egin.

**94.** Kontuan hartzen badugu, Legearekin bat, enpresa-elkarteen kasuan, elkargokideen negozio-bolumena kontuan hartu behar dela, eta bolumen hori zehaztea posible ez denean arau-hauste astunak 10 milioi eurotik gorako isunarekin zigortuko direla, aztertu egin behar dira aurreko irizpideak, isunen beharrezko disuasio-izaera eta zigorren proportzionaltasun-printzipioa.

Hori guztia dela eta, Lehiaren Euskal Kontseiluak jotzen du arrazoizkoa dela Eusko Jaurlaritzak doako justiziara bideratzen duen zenbatekoa behintzat kontuan hartzea, nahiz eta zenbateko ez den hurbiltzen abokatuek eskaintzen dituzten zerbitzu guztiei dagokien zenbatekora, eta horixe hartu beharko litzateke, hain zuzen ere, Auzitegi Gorenaren 2015eko urtarrilaren 29ko sententziaren arabera; halaber, kontuan hartzekoa da Bizkaiko Bazkunak 3.551 elkargokide dituela jardunean.<sup>62</sup>

Hori guztia dela eta, Lehiaren Euskal Kontseiluak 100.000 euroko isuna ezartzen du.

---

<sup>61</sup> Apirilaren 14ko 7/1997 legea, Lurzoruaren eta Elkargo Profesionalen alorreko neurri liberalizatzaileei buruzkoa (BOE, 90. zk., 1997ko apirilaren 15ekoa).

<sup>62</sup> Auzitegi Gorenaren 2015eko urtarrilaren 29ko sententzia (errekurtso-zenbakia: 2872/2015), Lehia Defendatzeari buruzko 15/2007 Legearen 63.1 artikulua interpretazioari buruzkoa, isunak ezartzeari dagokionez.



## IV. EBAZTEN DU

**LEHENA-** Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 1.1 artikuluko b) eta c) paragrafoak urratu direla egiaztatuta geratu da -2009ko abendutik gaur egunera arte-. Izan ere, sarrera-oztopoak ezarri dira ofizioko txanden eta guardia iraunkorreko txanden bidez eskainitako zerbitzuetarako; halaber, merkatua mugapeka zatikatu da Bizkai barruan eta beste probintzia batzuekiko.

Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua da aipatutako jarduketaren arduraduna.

**BIGARRENA-** Bazkunari jarrera arau-haustea eten dezan agintzea, Ofizioko Txandako eta Atxilotuei Laguntzeko Txandako Arautegiko Laugarren Arau Orokorra aldatuz. Erregulazio berriari esker, abokatutzako profesionalak ofizioko txandako eta guardia iraunkorreko txandetako espezialitate-zerrendetan sartu ahal izango dira, haien bizilekua edo bulego profesionala (ohikoa / nagusia izan zein ez) edozein tokitan egonik ere, eta beste elkargo batzuetako kide diren eta hango txandetan izena emanda dauden profesionalen sarbidea ez da mugatuko sei hilabeteko epean.

Bazkunari agintzea ebazpen hau elkargokide guztiei hilabeteko epean jakinaraztea eta arautegia hilabeteko epean aldatzea, ebazpena jasotzen duen unetik zenbatzen hasita.

**HIRUGARRENA-** 100.000 euroko zigorra ezartzea.

**LAUGARRENA-** Bazkunari agintzea LEA honetako Ikerketa Zuzendaritzaren aurrean justifika dezan ezarritako isuna ordaindu dela eta ebazpena bete dela.

**BOSGARRENA-** Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari eskatzea ebazpen hau osorik betetzen dela begira dezan.



Ebazpenaren berri eman bekio alderdi interesdunari adieraziz bide administratiboari amaiera eman diola eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jarri dezakeela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren (TSJPV-EAEAN) Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denen egunetik hasita.